

**2022ko AZAROAREN 24an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA** **10 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2022ko azaroaren 24an, arratsaldeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

<b>Batzarburua</b>	Xabier Txurruka Fernandez jn.
<b>Zinegotziak</b>	Miren Letamendia Belloso and. Jesus Arana Gomez jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Iban San Martin Hernandez jn. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Leire Arana Olabarrieta and. Iker Basurko De Miguel jn. Irene Urbietta Alberdi and. Koldo Uribarri Zenekorta jn. Itziar Murua Uria and. Ion Arozena Eizagirre jn. Mikel Goenaga Gubia jn. Ainara Landa Argote and. Begoña Olaizola Elordi and. Xabier Etxaburu Elu jn. Jesus Goikoetxea Balentziaga jn. Eider Illarramendi Azkue and. Gloria Vazquez Herranz and. Patxi Elola Azpeitia jn. Oihane Delgado Pita and.
<b>Idazkaria</b>	Amaia Gorrotxategi Zubizarreta and.
<b>Kontu-hartzailea</b>	Karmele Lizaso Ubera and.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

**GAI-ZERRENDAA**

### **1.- 2022ko URRIAREN 27ko BILKURAREN AKTA ONARTZEA.**

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20221124&punto=1>

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

### **2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA:**

#### **– 2022ko urriaren 24tik azaroaren 18ra**

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20221124&punto=2>

Segidan, Alkatetzak 2022ko urriaren 24tik azaroaren 18ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

### **3.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA:**

#### **– 2022ko urriaren 24tik azaroaren 14ra**

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20221124&punto=3>

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko urriaren 24tik azaroaren 14ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

### **4.- ZARAUZKO EMAKUME ETA GIZONEN IV PAREKIDETASUN PLANA (2023-2027)**

Espedientea: 2021FFFF0008

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20221124&punto=4>

Zarauzko Udalbatzarrak 2015eko abenduaren 30ean egindako osoko bilkuran Zarauzko Emakume eta Gizonen III Parekidetasun Plana (2016-2021) onartu zuen.

Plan honen indarraldia 2021. urtean bukatu zen eta planaren ebaluazioa eta egoeraren diagnostikoa egin ostean, 2022. urtean IV Parekidetasun Plana egituratzeko prozesua gauzatu da.

Plana udal politikariekin, departamentuetako teknikariekin, berdintasun kontseiluarekin eta herritarrekin landu da eta euren ekarpenak jaso dira. Behin behineko Plana herritarren aurrean jarri da udaleko web orrian eta bestalde, saio ireki bat egin da plana aurkezteko eta herritarren ekarpenak eta iradokizunak jasotzeko.

Prozesu guztian zehar landutako gaiak eta jasotako ekarpen guztiak kontutan hartuta, Zarauzko Emakume eta Gizonen IV Parekidetasun Plana (2023-2027) egituratu da.

Planak legeria berria eta udal-gobernuak berdintasunaren arloan dituen erronkak biltzea bilatzen du. Gizarte-aldaketarako erronkak proposatzen ditu, 4 ardatzetan antolatuta eta datozen urteetan esku-hartze publikoa bideratuko dutenak, gobernu ona, emakumeen ahalduntzea, ekonomiaren eta gizarte-antolaketaren eraldaketa eta indarkeria matxistarik gabeko bizitza bultzatuz.

4/2005 Legeak, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, 15.4 artikuluan jasotakoa betez, plana Emakundera bidali da eta Emakunderen aldeko txostena egin du.

Parekidetasun departamentuak Zarauzko Emakume eta Gizonen IV Parekidetasun Plana Herritarren arloko Informazio-batzordera eraman du irizpena eman dezan.

Parekidetasun departamentuak ZARAUZKO EMAKUME ETA GIZONEN IV PAREKIDETASUN PLANA (2023-2027) aurkeztu du Udalbatzarrak onar dezan.

Hori horrela, eta Herritarren arloko Informazio-batzordeak aurrez aldeko irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez, honakoa

## **ERABAKI DU**

ZARAUZKO EMAKUME ETA GIZONEN IV PAREKIDETASUN PLANA (2023-2027) onartzea 2023-2027 epealdirako.

### **5.- PLAN OROKORREKO 27. EREMUKO (ERROTAZAR) SEKTORIZAZIO PLANA. HASIERAKO ONESPENA**

Espedientea: 2020H7000013

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20221124&punto=5>

Akordio-proposamena irakurri ondoren, udal taldeen iritzirik trukaketarako tartea zabaldu da. Eztabaida amaituta, proposamena bozkatu dute, emaitza honekin:

Aldeko botoak:	12	10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE
Kontrako botoak:	—	
Abstentzioak:	9	8 EH Bildu, 1 Podemos-Equo Berdeak

Beraz, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

## PLAN OROKORREKO 27. EREMUKO (ERROTAZAR) SEKTORIZAZIO PLANA. HASIERAKO ONESPENA

Zarauzko hiri antolamenduaren plan orokorrak lurzoru urbanizagarri sektorizatu gabeko kategorian sailkatu zuen 27. eremua –Errotazar–, Abendañoko industria-eremua handitu ahal izateko.

Alkatetzaren 2021eko martxoaren 26ko 641 Dekretuaren bidez, Udalak baimena eman zion sektORIZAZIO plana egiteko ekimenari. Hasieran, SPRILUR SA eta Beterri Kostako Industrialdea SA sozietate publikoek sustatu bazuten ere, azkenean, SPRILUR SA sozietate publikoa da sektORIZAZIO planaren sustatzailea.

2021ean, jendaurrean jarri ziren, bi hilabetez, hasierako dokumentu estrategikoa, antolamenduaren aurrerapena eta herritarrek parte hartzeko programaren proposamena. Hiru alternatiba planteatu ziren:

- 0 alternatiba. Ez sektorizatzea
- 1 alternatiba. Sektorizatzea (16.800 m<sup>2</sup> inguruko eraikigarritasunarekin)
- 2 alternatiba. Sektorizatzea (20.000 m<sup>2</sup> inguruko eraikigarritasunarekin)

2022ko otsailaren 22an, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismen-dokumentuaren ebazpena jakinarazi zion Udalari.

Udalak, Alkatetzaren 2022ko martxoaren 25eko 0534 Dekretuaren bidez, 1 alternatiba hautatu zuen hasierako onespenerako dokumentua idazteko irizpide gisa.

Ondoren, hasierako onspena eman aurretik, nahitaezko txosten hauek eskatu eta jaso ziren:

- a.- Ur Kontsurtzioa, ur-hornidurako eta saneamenduko zerbitzuen nahikotasunari buruzkoa.
- b.- Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusia, zortasun aeronautikoei buruzkoa.

2022ko urrian, Sprilur SA sozietate publikoak hasierako onspenerako dokumentua aurkeztu zuen. 1 alternatiba garatzeaz gain, honako proposamen hauek jasotzen ditu:

- a.- Espazio libreak elkarren ondoko bi lurzatitan biltzea, hilerrira joateko bideak bereizita.
- b.- Sektoreko ekialdean bi ekipamendu-partzela handi antolatzea, La Salle ikastetxearen, Garbigunearen eta Udal Elkartearen egoitzaren alboan.
- c.- Sektorean dauden hiru etxebizitza-eraikinak finkatzea.

Hirigintza eta Ingurumen Departamentuak dokumentuari buruzko txostena egin zuen.

Hasierako onespeneren proposamena Lurraldeko informazio-batzordearen irizpenaren mende jarri zen.

Gaia aztertu ondoren, 12 zinegotzien aldeko botoarekin eta, beraz, legezko gehiengo osoaren "quorum"arekin, Udalbatzarrak

## ERABAKI DU

**Lehenengoa.-** Hasierako onespenera ematea plan orokorreko 27. eremuko (Errotazar) sektorizazio planari. Onartutako dokumentua 2022ko irailekoa da, Santiago Peñalba arkitektoak zuzendutako taldeak idatzia; Iñaki Urrizalki biologoak idatzitako ingurumen-dokumentu estrategikoa ere sartuta dago (2022ko martxokoa).

Onarpena honako baldintza honekin ematen da: behin-behineko onespenerako etorkizuneko dokumentuak zuzendu, jaso edo aldatu egin beharko ditu Hirigintza eta Ingurumen Departamentuaren 569/2022 txostenean (urriaren 19koa) adierazitako gaiak. Zehazki, honako hauek:

- a.- R4 partzelako zaldi-ukuilua antolamendutik kanpo dagoela adieraziko da.
- b.- Urbanizazioak irisgarritasuna eta hiri-zerbitzuak bermatu beharko ditu R2 eta R3 partzeletan dauden etxebizitza-erakinetarako (sektoreko mendebaldea).
- c.- Sektoriko urbanizazio-lanen barruan sartuko da Urdaneta kaletik kanposantura igotzen den bidea hobetzea eta hirilurrean integratzea.
- d.- Partzela batzuen azaleretan antzemandako akatsak zuzendu egingo dira (E2, C).

**Bigarrena.-**Txostenak eskatzea ondorengo administrazioei:

- a.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentua. Antolatu den eremuaren zati bat GI-3262 errepidearen babes-gunean dago.
- b.- Uraren Euskal Agentzia. Sektoriko hego-mendebaldeko muturretik Elutzar edo Abendaño erreka igarotzen da.
- c.- Telekomunikazioen eta Azpiegitura Digitalen Estatu Idazkaritza. Telekomunikazio Orokorren 9/2014 Legean xedatutakoa betetzeko.

**Hirugarrena.-** Espedientea jendaurrean jartzea, interesdunek aukera izan dezaten bidezkoak iruditzen zaizkien alegazioak aurkezteko. Jendaurreko erakustaldia 45 eguneko izango da, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, probintzian gehien zabaltzen den egunkarian eta Udalaren web-orrian iragarriko da.

**Laugarrena.-** Udal-plangintzako aholku-batzordeko kideei dei egitea, ohiko bilkura bat egin dezaten, Errotazarreko sektorizazio-planari buruzko txostena egiteko. Deialdia Alkatetzak egingo du, hasierako onespeneraren dokumentua jendaurrean jarri aurretik.

**6.- ZARAUZKO UDAL MUGAPEKO KALE-GARBIKETA ETA ANTZEKO ZERBITZUAK: KONTRATUAREN ALDAKETA.**

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20221124&punto=6>

Segidan, aztergai honi dagokion akordio-zirriborroa irakurri du **idazkariak**. Amaieran, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Hona hemen emaitza:

Aldeko botoak:	13	10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE, 1 Podemos-Equo Berdeak 8
Kontrako botoak:	–	
Abstentzioak:	8	8 EH Bildu

Ondorioz, adierazitako gehiengoarekin Udaltzarrak honako hau erabaki du:

### **ZARAUZKO UDAL MUGAPEKO KALE-GARBIKETA ETA ANTZEKO ZERBITZUAK: KONTRATUAREN ALDAKETA**

2021eko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, honako hauek onartu zituen Udaltzarrak: a) ZARAUZKO UDAL MUGAPEKO KALE-GARBIKETA ETA ANTZEKO ZERBITZUAREN kontratazioa egiteko Administrazio-klausulen Agiria eta Baldintza Teknikoen Agiria, eta b) kontratu hori prozedura ireki bidez adjudikatze deialdia.

Zegokion administrazio-espeditentia tramitatu ondoren, 2021eko urtarrilaren 28an Udaltzarrak egindako bilkuran delegatutako eskumenari jarraiki, Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko apirilaren 19an egindako bilkuran erabaki zuen kontratu hori UTE ZARAUZ GARBIA enpresari adjudikatzea, urteko 1.442.341,97 eurotan, BEZa barne (1.311.219,97 € + 131.122,00 € BEZa). Kontratua 2021eko maiatzaren 20an sinatu zen, baina, 2021eko maiatzaren 28an sinatutako Hasiera Aktan, zerbitzua ekainaren 1ean hasiko zela adostu zen.

Orain, Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuetako Departamentuak kontratua aldatzeko proposamena aurkeztu du. Aldaketetako bat aurreikusita dago Administrazio-klausulen Agirian: kale-garbigailu bat eta dekapatzaile bat erostea. Lehena, udalerriko zona berriak garbitzeko (Salberdin urbanizazioa eta Errotaberri industrialdea); eta bigarrena, herriko espaloiak sakon eta etengabe garbitzeko. Horrek, guztira, 183.755,53 euroko kostua du, BEZa barne (167.050,48 € + 16.705,05 € BEZa). Beste aldaketa ez dago aurreikusita klausulen agirian, baina ez da funtsezkoa: giza baliabideak jartzea, arratsaldeetan ere garbiketa-zerbitzua emateko. Horrek, guztira, 75.876,11 euroko kostua du, BEZa barne (68.978,28 € + 6.897,83 € BEZa).

Aurrekoa ikusita, eta azaldutako arrazoiengatik, Lurraldeko informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udaltzarrak gehiengoz honako hau

### **ERABAKI DU**

**Lehena.-** ZARAUZKO UDAL MUGAPEKO KALE-GARBIKETA ETA ANTZEKO ZERBITZUA emateko UTE ZARAUTZ GARBIA enpresarekin egindako kontratua aldatzea, hain zuzen ere honako baldintza hauetan:

KONTZEPTUA	PREZIOA
1. XURGATZE-GARBIGAILUA (2 m <sup>3</sup> ) XURGATZE-GARBIGAILUA erostea (gidariduna), Salberdin urbanizazioan eta Errotaberi industrialdean, astelehenetik larunbatera, kale-garbigeta mekanikoa egiteko.	98.870,72 €
2. KALE-GARBIGAILU DEKAPATZAILEA KALE-GARBIGAILU DEKAPATZAILEA erostea (gidariduna), astelehenetik ostiralera espaloiak mekanikoki eta sakonki garbitzeko.	84.884,81 €
3. ANTZEKO LANAK EGITEKO PEOIA Giza baliabideak jartzea, aste osoan merkatua garbitzeko, eta astelehenetik igandera, arratsaldeko zerbitzua emateko.	75.876,11 €
GUZTIRA (BEZa barne):	<b>259.631,64 €</b>

**Bigarrena.-** Ebazpen honen jakinarazpena jaso eta hurrengo bost laneguneko epean honako hauek egin beharko ditu adjudikaziodunak:

- Behin betiko bermea birdoitzea, 11.801,44 euro gehituta, kontratu aldaketagatik.
- Kontratua legeztatzea, dokumentu administratibo bidez.

**7.- OSTALARITZA ETA MERKATARITZAKO ESTABLEZIMENDUEK BIDE PUBLIKOA ERABILTZEARI ETA OKUPATZEARI BURUZKO UDAL ORDENANTZA. BEHIN BETIKO ONESPENA.**

Espedientea: 2020ZEZZ0003

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20221124&punto=7>

Akordio-zirriborroa irakurri eta gero, **Idazkariak** ohartarazi du ordenantzen 11.3 artikuluan akats bat dagoela, eta "... beste 2,00 m eraikinerira iritsi ..." dioen lekuan, "... beste 2,00 m **pareko** eraikinerira iritsi ..."jarri behar duela. Ondoren, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	10	10 EAJ-PNV
Kontrako botoak:	3	2 PSE-EE, 1 Podemos-Equo Berdeak
Abstentzioak:	8	8 EH Bildu

Ondorioz, Udalbatzarrak adierazitako gehiengoarekin, honakoa erabaki du:

**OSTALARITZA ETA MERKATARITZAKO ESTABLEZIMENDUEK BIDE  
PUBLIKOA ERABILTZEARI ETA OKUPATZEARI BURUZKO UDAL  
ORDENANTZA. BEHIN BETIKO ONESPENA**

OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUEK BIDE PUBLIKOA ERABILTZEARI ETA OKUPATZEARI BURUZKO UDAL ORDENANTZA 2013ko ekainaren 7an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (108 zk.) eta 2013ko ekainaren 27an sartu zen indarrean.

Harrezkero igaro den denbora ikusita eta metatutako esperientzia kontuan hartuta, beharrezkotzat jo zen ordenantza hori eguneratzea.

OSTALARITZAKO ETA MERKATARITZAKO ESTABLEZIMENDUEK BIDE PUBLIKOA ERABILTZEARI ETA OKUPATZEARI BURUZKO UDAL ORDENANTZA berria onartzeko proposamena idatzi zuen Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuetako Departamentuak.

Dokumentuak jaso dituen aldaketak, funtsean, arrazoi hauetan oinarritu dira:

- Ostalaritzako eta merkataritzako establezimenduek bide publikoan egiten duten okupazioa arautzea, era berean irisgarritasuna eta espazio publikoaren paisaia-balioa zainduz, eta eragindako espazio publikoaren erabilera bermatuz, horretarako kalitatezko ostalaritza eta merkataritza zerbitzuen harmonizazioan, antolaketan eta sustapenean oinarritutako irizpide argiak erabilia.
- Espazio publikoan instalatu daitezkeen elementuak zehaztea erabiltzaileen eta auzokideen arteko bizikidetzaren hobetzeko.
- Establezimenduei irtenbideak ematea, oinezkoentzako ibilbideak errespetatu ahal izateko.

2022ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Udalbatzarrak hasierako onespena eman zion OSTALARITZAKO ETA MERKATARITZAKO ESTABLEZIMENDUEK BIDE PUBLIKOA ERABILTZEARI ETA OKUPATZEARI BURUZKO UDAL ORDENANTZARI.

Espedientea jendaurrean egon zen epean, guztira 6 alegazio-idazki aurkeztu zituzten honako pertsona hauek:

- M A M eta beste batzuk (2022ko uztailaren 1ean aurkeztua, sarrera-erregistro zk.: 8390/2022).
- G S M (2022ko uztailaren 8an aurkeztua, sarrera-erregistro zk.: 8788/2022)
- S T SL eta beste batzuk (2022ko uztailaren 20an aurkeztua, sarrera-erregistro zk.: 9316/2022)
- S R W eta beste batzuk (2022ko uztailaren 21ean aurkeztua, sarrera-erregistro zk.: 9339/2022)



- A G U (2022ko uztailearen 21ean aurkeztua, sarrera-erregistro zk.: 9384/2022)

- J E A E (2022ko uztailearen 26an aurkeztua, sarrera-erregistro zk.: 9504/2022).

Herrilan, Azpiegiturak eta Zerbitzuetako Departamentuak alegazioen inguruko txostena egin du (txosten zk.: 0439/2022). Bertan proposatzen da aurkeztutako alegazioak ezestea eta hasieran onartutako agirian jasotako xedapenak mantentzea, hurrengoak izan ezik:

- Atarikoan, "Zarauzko udalerriko terrazak eta horien elementuak aztertzeke lana" aipatzea, dokumentu hori abiapuntu izan baitzen ordenantza berria onartzeko.
- 8. artikulua 2. atala aldatu, honako hau eransteko: lizentziaren baldintzen laburpen-fitxa establezimenduan jarri behar da, kanpotik ikusteko moduko leku batean.

Espedientea 2022ko urriaren 13ko Lurraldeko informazio-batzordean eztabaidatu zen, aldeko irizpenarekin.

Espedientea aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak gehiengoz honako hau

## ERABAKI DU

**Lehenengoa.-** Aurkeztutako alegazioei erantzutea, Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuetako Departamentuak egindako txostenaren arabera (urriaren 7ko 0439/2022 txostena).

Emandako txostenak erabaki honetan sartuko dira arrazoibideak emateko, eta interesdunei jakinaraziko zaizkie, akordioarekin batera.

**Bigarrena.-** Behin betiko onespina ematea OSTALARITZAKO ETA MERKATARITZAKO ESTABLEZIMENDUEK BIDE PUBLIKOA ERABILTZEARI ETA OKUPATZEARI BURUZKO UDAL ORDENANTZARI.

**Hirugarrena.-** Ordenantzaren testu osoa Probintziako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, indarrean sar dadin.

OSTALARITZAKO ETA MERKATARITZAKO ESTABLEZIMENDUEK BIDE PUBLIKOA  
ERABILTZEARI ETA OKUPATZEARI BURUZKO UDAL ORDENANTZA

## AURKIBIDEA

### ATARIKOA

#### I. KAPITULUA.- XEDEA, EREMUA ETA ESKUMENA

- 1. artikulua. XEDEA
- 2. artikulua. APLIKAZIO-ESPARRUA
- 3. artikulua. ESKUMENA

## II KAPITULUA.- ARAUBIDE JURIDIKOA

- 4. artikulua. LIZENTZIA LORTZEKO BALDINTZAK
- 5. artikulua. LIZENTZIAREN INDARRALDIA ETA BERRIKUNTZA
- 6. artikulua. ESKAERA ETA DOKUMENTAZIO ERANTSIA
- 7. artikulua. TXOSTENAK ETA EBAZPENA
- 8. artikulua. LIZENTZIAREN BALDINTZAK

## III. KAPITULUA.- OKUPAZIOAREN BALDINTZAK

- 9. artikulua. BALDINTZA OROKORRAK
- 10. artikulua. OKUPAZIOA
- 11. artikulua. OINEZKOEN KALEETAKO BALDINTZAK
- 12. artikulua. PLAZETAKO ETA ESPAZIO LIBREETAKO BALDINTZAK
- 13. artikulua. ITSASERTZEKO PASEALEKUKO BALDINTZAK

## IV. KAPITULUA - OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUEN TERRAZETAKO INSTALAZIO OSAGARRIEN BALDINTZAK

- 14. artikulua. OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUEN BALDINTZAK
  - 14.1.- Baldintza orokorrak
  - 14.2.- Alde Zaharreko oinezko kaleetako baldintzak
  - 14.3.- Alde Zaharreko eta Munoako plazetako eta espazio libreetako baldintzak
  - 14.4.- Alde Zaharretik kanpoko oinezko plazetako eta pasealekuetako baldintzak
  - 14.5.- Alde Zaharretik kanpo oinezkoentzat ez diren kaleetako baldintzak
  - 14.6.- Itsasertzeko pasealekuko baldintzak
- 15. artikulua. ORDUTEGIA ETA GARBIKETA, OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUEI LOTUTAKO OKUPAZIOEN FUNTZIONAMENDUAN
- 16. artikulua. TERRAZETAKO INSTALAZIO OSAGARRIAK
  - 1.- Perimetroko babesak
  - 2.- Sonbrilak eta terrazari lotutako toldoak
  - 3.- Egitura irekiak (bi isurkiko toldoa) eta itxiak
    - 3.1. Egitura irekiak (bi isurkiko toldoa)
    - 3.2. Egitura itxiak
  - 4. Galtzadako aparkaleku gaineko instalazioa
- 17. artikulua. INSTALAZIO ELEKTRIKOEN BALDINTZAK
- 18. artikulua. BEROGAILUEN BALDINTZAK
- 19. artikulua. OSTALARITZAKO TERRAZEN BALDINTZA ESTETIKOAK

## V. KAPITULUA.- MERKATARITZAKO ESTABLEZIMENDUETAKO ELEMENTUEN BALDINTZAK

- 20. artikulua. MERKATARITZAKO ESTABLEZIMENDUEN BALDINTZAK
- 21. artikulua. MERKATARITZAKO ESTABLEZIMENDUEI LOTUTAKO OKUPAZIOEN FUNTZIONAMENDU-ORDUTEGIA
- 22. artikulua. MERKATARITZAKO ESTABLEZIMENDUETAKO ELEMENTUAK
- 23. artikulua. PRODUKTUEN SALMENTA AUTOMATIKOA ETA JOLAS-MAKINAK
- 24. artikulua. OKUPATUKO DEN AZALERAREN MUGAKETA

## VI. KAPITULUA.- ZIGOR-ARAUBIDEA ETA LEGEZKOTASUNA BERRESKURATZEA

- 24. artikulua. BAIMENDU GABEKO INSTALAZIOAK
- 26. artikulua. LIZENTZIAREN BALDINTZAK EZ BETETZEA
- 27. artikulua. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

XEDAPEN GEHIGARRIA  
XEDAPEN INDARGABETZAILEA  
XEDAPEN IRAGANKORRA  
AZKEN XEDAPENA

## ATARIKOA

Biztanleriaren usadio eta ohiturak denborarekin aldatu egiten direnez, herriko merkataritza, turismo eta ostalaritzako sektoreak ere etengabe egokitu behar izaten ditu bere zerbitzuak kalitatezko arreta eskaintzeko, etengabeko berrikuntzan eta hobekuntzan oinarrituta.

Zarauzko Udalak etengabe aldatzen ari den testuinguru batera egokitu behar du, eta ordenantzak, erregulazioak eta araudiak ezin dira errealitate horretatik kanpo geratu. Horren arabera, Udalak bere araudiak moldatu egin behar izaten ditu: hobekuntzak egiten ditu arauok zeharkako errealitate dinamiko horretara egokitzeko, eta ostalaritzako eta merkataritzako zerbitzu jasagarriak bermatzen ditu, kalitatean eta errespetuan oinarrituta eta merkatarari, ostalari, eragile turistiko, eragile sozial, erakunde, herritar eta bisitariekin batera.

Ordenantza hau, beraz, Zarauzko nortasun-ikurrak mantentzeko estrategia orokor batean kokatu behar da. Zarautz ezaguna da bertako bizilagunen bizi-kalitateagatik eta bisitariarentzat duen erakargarritasunagatik, eta berdin zaintzen ditu irisgarritasuna eta espazio publikoko paisaiaren balioa, irizpide argi hauetan oinarrituta: ostalaritzako eta merkataritzako kalitatezko zerbitzuen harmonizazioa, antolamendua eta sustapena, eta ZARAUZKO GIRO-SOINUA HOBETZEKO EKINTZA PLANean adierazitako kalitate akustikoko helburuak kontuan hartuta.

Xedapen hau honako balio eta irizpide hauetan oinarritzen da:

- Erabilera orokor arruntak lehenetsia izango du. Arreta berezia jarriko da oinezkoen joan-etorrietan, eta une oro bermatuko da herritarrek eragozpenik ez izatea erabilera publikoko lekuetara arintasunez, erosotasunez eta segurtasunez iristeko.
- Hiri-paisaiako zuhaitzak, parterreak eta landaredia eta hiri-altzariak babestea.
- Zerbitzu publikoen funtzionamendua bermatzea, bereziki larrialdikoak.
- Herritarrek ingurugiro osasungarria edukitzeko daukaten eskubidea babestea.

ZARAUZKO UDALERRIKO TERRAZAK ETA HORIEN ELEMENTUAK AZTERTZEKO LANA kontuan izan da. Azterketa hori abiapuntu gisa kontratatu zen, ostalaritzako establezimenduen okupazioen egungo egoera aztertze eta, egindako azterketaren arabera, zenbait proposamen garatzeko, honako hauek kontuan izanda: kasu/gune bakoitzaren beharrak eta aukerak; oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioa; eragin dezaketen faktore meteorologikoak; okupazioek hiri-ingurunean duten ikusmen-afekzioa; integrazio urbanistikoa; gune bereko terrazen kontzentrazioa; gunean sortzen den zarata; instalazioa jartzeko/kentzeko edo biltzeko erraztasuna; etab.

Erabilera orokorreko ondasunak modu pribatiboan erabiltzeak indargabetuta uzten du pertsona batzuen aldeko jabari publikoaren erabilera orokorraren printzipioa. Horregatik, kontrolatu eta arautu egin behar da erabilera horien eta erabilera orokorraren arteko bateragarritasuna.

## I. KAPITULUA.- XEDEA, EREMUA ETA ESKUMENA

### 1 artikulua. Xedea

1.- Ordenantza honen xedea da jendearentzat irekita dauden ostalaritzako eta merkataritzako establezimenduetako titularrek bide publikoan jarritako elementuekin egiten duten okupazioa eta erabilera arautzea da. Establezimendu horiek irekitze-lizentzia, aurrekomunikazioa edo, araudiaren arabera, jarduera burutzeko gaitzen duen titulua eduki behar dute.

2.- Bide publikoaren okupazio eta aprobetxamendu horien kategoria juridikoa "erabilera komun berezia" da, eta gauzatu ahal izateko, kasu bakoitzean, aldez aurretik udal lizentzia eskatu behar da; lizentzia hori ordenantza honetan aurreikusitakoaren arabera emango da, lokalaren kokapenagatik behar diren beste baimen batzuei utzi gabe.

Jabari publikoko emakidek beren araudi espezifikoak izango dute.

3.- Aurreko atalaren ondorioetarako, honako elementuekin osatutako multzoak arautuko ditu ordenantza honek:

- a) Ostalaritzako establezimenduek bide publikoan egindako okupazioa: terrazak, mahaiak eta aulkiak eta beste zenbait altzari mugikor eta desmuntagarri (sonbrilak, estalkiak, kanpoko berogailuak, informazio-panelak, jardinerak eta antzeko elementuak) eta beste instalazio osagarri batzuk (toldoak, egitura irekiak – bi isurkiko toldoa – edo itxiak eta perimetroko babesak); alegia, ostalaritzako establezimendu bati jarduera modu osagarrian garatzeko aukera emateko direnak.
- b) Merkataritzako establezimenduek bide publikoan egindako okupazioa, bai salmentarako produktuekin bai apaingarrieekin (jardinerak, bereizgailuak, erakustegiak, publizitateko elementuak eta jarduerarekin zerikusia duen beste edozein elementu). Baimentzen diren elementuak jardueraren erakargarritzat hartu behar dira, sekula ez dira izango jardueraren luzapen bat.

4. Ordenantza honen arauditik kanpo geratzen dira, batetik, aldi baterako ekitaldietan espazio publikoan egiten den okupazioa (azoka, festa, kirol-gertaerak eta antzekoak) eta, bestetik, kantinen ustiaketarako udal kontzesioek egiten dituzten okupazioak.

## **2. artikulua. Aplikazio-esparrua**

1.- Ordenantza honek erabilera publikoko espazio guztietarako balio du (kaleak, plazak, barruko patioak, espazio libreak, pasabideak etab.), horien titulartasuna edozein izanda ere. Berezko egoerak berak eta indarrean dagoen plangintzak erabakiko dute erabilera publikoaren izaera.

2.- Dena dela, araudi hau ez zaie aplikatuko udal administrazio-kontzesio baten babesean garatutako jarduera nagusi bateko instalazio osagarriari edo noizbehinkako ospakizunetan eta herriko jai-ekitaldietan edo Udalarekin batera sustatutako kanpainetan egiten direnei.

3.- Jabari publiko itsas-lehortarrean edo bide-zortasuneko gunean jartzen badira elementuak, aldi baterako baimen horiek administrazio eskudunek emandako aginduak bete beharko dituzte.

4.- Ordenantza honen aplikazio-esparrutik kanpo geratzen dira honakoak:

- a) Kaleko salmenta.
- b) Kantinak ustiatzeko udal kontzesioak.
- c) Publizitateko kartelak eta hesiak.
- d) Behe-solairuko toldoak, terrazari lotu gabekoak; hiri antolamenduaren plan orokorrak arautzen ditu horiek.

5.- Aurreko atalean zerrendatutako kasuak dagokien udal ordenantzaren eta sektoreko araudi aplikagarriaren arabera arautuko dira. Kantinen ustiaketarako udal kontzesioek horien baldintza-agirietan xedatutakoa beteko dute.

## **3. artikulua. Eskumena**

Alkatetzak emango ditu lizentziak.

Alkatetzari baimena ematen zaio, berariaz, ordenantza hau interpretatu, argitu eta gara dezan, administrazio-prozedura erkideari buruz indarrean dagoen legediko printzipioen arabera.

## **II. KAPITULUA.- ARAUBIDE JURIDIKOA**

### **4. artikulua. Lizentzia lortzeko baldintzak**

Ordenantza honetan araututako lizentziak eskuratu ahal izateko ezinbestekoa izango da:

- 1.- Jarduera ekonomikoaren titularra izatea eta establezimenduak irekitze-lizentzia edukitzea, edo aurrekomunikazioa edo jarduera burutzeko gaitzen duen titulua.
- 2.- Okupazioarekin lotutako jarduera legeztatzekeo tramite eta egintza administratibo guztiak beteta edukitzea.
- 3.- Lizentziaren eskaerari dagokion jardueraren titularrak ordainduta edukitzea jarduerarekin lotuta Udalaren alde izan dezakeen edozein eskubide.
- 4.- Baimendutako establezimenduaren arduradunak une oro indarrean edukitzea erantzukizun zibileko poliza bat, hauek estaliko dituen: bide publikoaren okupaziotik eta bertan egiten den jardueratik sortutako kalteak eta bertako elementuek jasandako kalteak, baita funtzionamendu-ordutegitik kanpo ere, bide publikoan biltzea baimendu den kasuetan.

### **5. artikulua. Lizentziaren indarraldia eta berrikuntza**

Interes orokorrak hala eskatzen duelako eta jabari publikoko espazioa mugatua delako, beharrezkoa da lizentzia-kopurua eta horien indarraldia mugatzea. Kasu bakoitzean adierazitako denborarako emango dira lizentziak, ordenantza honetan jarritakoarekin bat datozen zirkunstantziak kontuan izanda.

- 1.- Erabilera publikoko espazio bat okupatzeko emandako lizentziak (kaleak, plazak, espazio libreak, pasadizoak, etab.) gehienez ere lau urterako emango dira. Hala ere, Udalak baimena ondoriorik gabe utzi ahalko du, arrazoituta, edozein momentutan, eta alde zuzenetik interesdunari entzunda; bereziki, hala komeni denean trafikoagatik, urbanizazioagatik, obrenagatik edo kulturako, kiroleko edo interes orokorreko bestelako jarduerengatik.
- 2.- Baimenaren hasierako denboraldia bukatzen denean, baimena automatikoki luzatuko da, urtero, eta baldintza beretan. Ez da hala gertatuko, ordea, baimendutako pertsonak adierazten badu baimena bertan behera utzi nahi duela edo Udalak erabakitzen badu aurreko atalean aurreikusitako moduan jokatzea.
- 3.- Lizentziaren onuradunek hasierako baimenean edozein aldaketa egin nahi izanez gero (irekitze-lizentziaren edo jarduera burutzeko gaitzen duen baimenaren titularra, okupazio-azalera, altzariak, kokapena etab.), lizentzia eskatu beharko dute berriro ere eta, hala badagokio, baita lizentziaren transmisioaren berri eman ere.
- 4.- Baimena bertan behera geratzen bada, lizentziaren titularrak edo, hala badagokio, okupazioarekin zerikusia duen establezimenduaren arduradunak instalazio osoa kendu beharko du, bide publikoa lehen zegoen bezala utzita.

### **6. artikulua. Eskaera eta dokumentazio erantsia**

Interesdunak lizentzia-eskabidea aurkeztu beharko du Udalean. Eskabidearekin batera dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- 1.- Oro har:

- a) Lokalaren kokapenaren planoak, 1:200 eskalan egina, edo krokisa, fatxadaren luzera eta instalazioarekin okupatu nahi den azalera kotatu zehatza adierazita.
- b) Instalatu diren altzari eta/edo elementuen definizioa, materialen deskribapena, neurriak eta beharrezkoa den dokumentazio guztia (argazkiak, katalogoak...).

2. Ordenantza honetan araututa dauden konplexutasun teknikoko elementuak baimentzerakoan, instalazio horiek arautzen dituzten artikuluetako xedapenak ere bete egin direla egiaztatzea behar da.

a) Egitura irekiak instalatzeko (bi isurkiko toldoak), teknikari eskudunek sinatutako dokumentazioa aurkeztu da, eta honako hauek adierazi:

- Jarri nahi den egituraren deskribapena: neurriak, materialak, ezaugarri estetikoak eta abar.
- Instalatu nahi den egituraren oin, altxaera eta sekzio planoak (eskalan).
- Instalazioaren kokapen-planoak, hala badagokio, zerbitzu publikoetan –ura, saneamendua, argiteria– eta hiri-altzarietan –bankuak, zuhaitzak, jardinerak, bizikleta-euskarriak, zakarrentziak...– izan ditzakeen eraginak adierazita.
- Elementuaren egonkortasuna ziurtatzen eta/edo justifikatzen edo bermatzen duen agiria.
- Instalazioek III. kapituluko baldintzak betetzen dituztela egiaztatze zaurtagiria.
- Baimenak irauten duen bitartean instalazioa estaliko duen erantzukizun zibileko poliza eta norberaren kalteena.

b) Egitura itxietan, aurreko letran adierazitakoaz gain, honako hauek ekarriko dira:

- Ainguraketen deskribapena (mota eta kopurua).
- Suteen aurkako baldintzak betetzen direla egiaztatze zaurtagiria (suteen aurkako babes-instalazioak, ebakuazio-bideak, egonkortasuna eta suarekiko erreakzioa).
- Instalazioen planoak. Instalazio elektrikoak bukatutakoan, baimendutako instalatzailearen zaurtagiria aurkeztu behar da, edo, horrela balegokio, Baimendutako Kontrol Erakunde batek egindako ikuskapenaren zaurtagiria.

c) Aparkalekuetako instalazioa:

- Oin, altxaera eta xehetasun planoak. Sareetako eraginaren xehetasuna. Hala badagokio, euri-uren ebakuazioa eta aurreikusitako erregistroak bermatzeko irtenbidea.

d) Berogailuen kasuan, artikuluko honetako 1 atalean aurreikusitakoaz gain, hauek aurkeztu dira:

- CE zaurtagiria
- Berogailuaren fitxa teknikoak

e) Instalazio elektrikoaren kasuan, artikuluko honetako 1 atalean aurreikusitakoaz gain, hauek aurkeztu dira:

- Instalazioaren planoak, deskribapena eta ezaugarriak, Udal Zerbitzu Teknikoek bere oniritzia emateko helburuarekin.
- Argien potentzia >1 KWekoa bada, honako dekretua betetzen dela justifikatu behar da: 1890/2008 Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Kanpoko argiteria instalazioen energia eraginkortasunaren araubideari buruzkoa (EA-01etik EA-07ra bitarteko jarraibide tekniko osagarriak).
- Jarritako potentzia <1 KWekoa bada, egiaztatuko da instalazioa energiaren aldetik eraginkorra dela eta ez duela ez itsutuko ez eta argi-kutsadurarik eragingo.
- Instalazio elektrikoak jartzeko baimena emanez gero, instalazioa egindakoan, hauek ekarriko dira:
  1. Instalatzaile baimenduaren zaurtagiria (edo baimendutako instalazio-zaurtagiria) edo, horrela balegokio, Baimendutako Kontrol Erakunde batek egindako ikuskapenaren zaurtagiria.
  2. Argiteria-instalazioaren eraginkortasun energetikoaren zaurtagiria.

Ordenantza honetan berariaz arautu gabeko beste elementu batzuen kasuan, udal teknikariek zehaztuko dute kasu bakoitzean zein dokumentazio osagarri aurkeztu behar den.

## **7. artikulua. Txostenak eta ebazpena**

- 1.- Eskaera aurkeztu ondoren (aurreko artikuluetan adierazi bezala), eta dagozkion txosten tekniko eta juridikoak egin ondoren, Udalak hiru hilabeteko epean hartuko du erabakia.
- 2.- Txosten teknikoan, hala badagokio, dokumentu edo fitxa bat sartuko da, eta hor plano batean adieraziko dira baimentzen den instalazioaren ezaugarri zehatzak (kokapena, okupatuko den azalera, etab.).
- 3.- Hiru hilabeteko epean berariazko erabakirik hartzen ez bada, ezetsi egin dela ulertuko da.

## **8. artikulua. Lizentziaren baldintzak**

- 1.- Emandako lizentzia ezin izango da arrazoitzat aipatu titularrak bere jarduerak gauzatzean izan duen erantzukizun zibila edo penala ukatzeko edo murrizteko, eta, era berean, ez du salbuesten, hala badagokio, beste baimen batzuk lortzetik.
  - 2.- Lizentziaren dokumentuan zehaztuko dira instalazio eta elementu osagarrien baldintzak. Udalak baldintza horien laburpen-fitxa bat emango du, eta baimenaren titularrak establezimenduan jarri beharko du, kanpotik ondo ikusteko moduan. Fitxa horretan, gutxienez, kokapen-plano bat azalduko da, eta hor adieraziko dira: baimendutako okupazio-azalera, mahai kopurua eta mota (altuak edo baxuak), baimendutako eserlekuak edo elementuak eta oinezkoen joan-etorrirako utzitako pasabide libreak; azken horiek nabarmenduta adieraziko dira, zabalerak eta distantziak zenbakitan jarrita. Gainera, ordutegia eta baimendutako denboraldia adieraziko dira udal dokumentu horretan.
  - 3.- Lizentzia beti prekarioan emango da, eta Alkatetzak agindu ahalko du instalazioak bide publikotik kentzeko, baimendutako instalazio guztiengatik edo batzuegatik kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe, hala egitea komeni bada trafikoagatik, urbanizazioagatik, obregatik edo kulturako, kiroleko edo interes orokorreko bestelako jarduerengatik.
- Dena dela, baimendutako instalazio osoa edo zati bat astebetetik gora egon behar bada kenduta, Udalak itzuli egingo du instalazioa erabili ezin izan den denboraldiari dagokion tasaren zati proportzionala.
- 4.- Udalak ez du erantzukizunik izango baimendutako jarduerak eta okupazioak eragindako kalteetan, ezta okupazioa osatzen duten elementuek jasandako kalteetan ere.
  - 5.- Instalazioaren ondorioz bide publikoan egindako kalte guztiak konpondu beharko ditu lizentziaren titularrak.
  - 6.- Egitura irekietan edo itxietan eta aparkalekuetako okupazioetan, lizentziaren titularrak fidantzari dagokion zenbatekoa jarriko du, bide publikoan gertatzen diren kalteei erantzuteko; helburua da zoru publikoa jatorrizko egoeran geratzea, zoru publikoaren okupazioa bukatu ondoren edo zoru publikoan baimendutako instalazioak bukatu ondoren. Fidantza 100 eurokoa izango da, egitura irekietarako, eta 500 eurokoa, egitura itxietarako eta aparkalekuetako instalazioetarako. Udalari sortutako gastuak handiagoak badira fidantzaren zenbatekoa baino, eta borondatezko epean ordaintzen ez badira, premiamendu bidetik eskatuko da gainditzen dena.
  - 7.- Lizentziaren onuradunak ezingo ditu baimendutako elementuak zehaztutako espazioan jarri, harik eta Udalak onartutako ordainarazpenak egin arte eta, hala badagokio, fidantza jarri arte; horiek lizentzia ematearekin batera jakinaraziko zaizkio lizentziaren titularrari.

Ordainarazpenak eta fidantza bere epean egin eta jarri ez badira, emandako baimena iraungitzat joko da ondorio guztietarako. Kasu horretan, eta hala badagokio, interesdunak beste lizentzia bat eskatu beharko du jabari publikoa okupatzeko, eta beste likidazio bat egingo da.

8.- Ordenantza Fiskaletan jabari publikoaren okupaziorako aurreikusita dauden ordainketak egin beharko ditu lizentziaren titularrak, bai eta jabari publiko itsas-lehortarraren okupaziotik sortutakoak ere, halakorik egonez gero.

Zerga-aldietakoren batean tasa dagokion epean ordaintzen ez bada, emandako lizentzia ondoriorik gabe geratuko da. Kasu horretan, espazio publikoa okupatzen jarraitzea hutsegite larritzat joko da, eta dagozkion neurriak hartuko dira.

9.- Okupazioa ezingo da, inola ere, Udalak baimendutako azalera baino handiagoa izan; beraz, bai establezimenduko elementuak bai bezeroak lizentziarekin batera aurkeztutako planoko mugen barruan geratu beharko dira.

Debekatuta dago baimendu gabeko elementu osagarriak jartzea; esate baterako, kanpoko barrak, makinak edo antzekoak, ezohiko egoera baten aurrean baimen berezia izan ezean. Estetika eta higiene arazoengatik, ezin da jardueraren berezko produktu, material edo hondakinik biltegitatu edo pilatu terrazetan edo horien ondoan (kuboak, orgak, plataformak, sonbrilen oinarriak, etab.), ezta instalazioen berezko hondakinak ere.

10.- Egitura itxietan izan ezik, ezin da elementurik ainguratu, fatxadako toldoen kasuan izan ezik. Terrazaren lizentzia-eskaeran zehaztu egin beharko da zenbat ainguraketa eta zein ainguraketa-sistema erabiliko den. Sistema horrek ez dio inguruko irisgarritasunari eragingo, erabiltzen ari ez denean.

11.- Jardinerak, sonbrilen euskarriak, altzariak eta, oro har, instalazioak beti egoera onean edukiko dira.

12.- Lizentziak indarraldia galdu ondoren, eragindako baldosa guztiak ordezkatu beharko ditu okupazio-lizentziaren titularrak. Lizentziaren titulartasuna aldatzen bada, edo lizentzia bukatutakoan, beste titularren batek ainguraketa horiek erabiltzen jarraitu nahi badu, lizentzia berriaren eskabidean berariaz adierazi beharko du lizentzia bukatzen denean bere gain hartuko duela eragindako baldosak ordezkatzeko erantzukizuna.

13.- Establezimenduak bere kategoriaren arabera eta udal ordenantzetan ezarritakoarekin bat etorrira baimenduta dituen edariak eta artikuluak bakarrik zerbitzatu ahalko dira terrazetan.

### III. KAPITULUA - OKUPAZIOAREN BALDINTZAK

#### 9. artikulua. Baldintza orokorrak

Ordenantza honetan araututako bide publikoko okupazioak eta erabilerak baimendu ahal izango dira soilik dagokion lekuan oinezkoen ohiko joan-etorri arinarekin edo aurreikus daitekeenarekin bateragarriak diren kasuetan eta hedadurarekin eta baldintzekin. Bereziki, kontuan hartuko dira muga organiko, funtzional edo motorrak dituztenak edo haurren aulkiekin dabiltzan pertsonen zailtasun bereziak.

Ez da baimenik emango ezaugarri fisikoengatik edo oinezkoen joan-etorriaren intentsitate-mailagatik pertsona guztien eta, bereziki, kalteberenen segurtasunean, irisgarritasunean edo erosotasunean eragin negatiboa izan dezaketen guneetan.

Okupazio-lizentzia daukan azalera zehatza mugatzeko garaian, kontuan hartu beharko dira joan-etorrirako beharrak eta mahaiak eta aulkiak edo beste elementu batzuk jartzeko lekuak, eta, hortaz, denbora guztian gutxieneko espazio bat utzi beharko da oinezkoen joan-etorrirako, egonaldietarako eta espazio publikoko ongizatearekin, zaintzarekin edo bizikidetzarekin lotutako beste jarduera batzuetarako, ondorengo arauen arabera:

1. Oro har, ezingo da elementurik jarri 2,90 metrotik beherako zabalera duten espaloietan eta oinezkoentzako espazioetan, ezta okupaziorik egin ere oinezko kale baten bi aldeetan, kaleak 3,80 metrotik beherako zabalera duenean.



Hala eta guztiz ere, kasu horietan, salbuespenez, baimena eman ahal izango da fatxadara itsatsitako elementuak jartzeko, ordenantza honetako 10.3 artikuluan adierazitakoaren arabera.

2. Nolanahi ere, debekatuta dago terrazak edo beste elementu batzuk jartzea leku hauen parean: zebrabideak; ezinduentzako aparkalekuak; suteetako ur-harguneak; larrialdi-irteerak; autobus eta taxi geltokiak; beira, kartoia eta zaborra jasotzeko edukiontziak, etab.

Era berean, jabari publiko itsas-lehortarreko zonaren aldamenean dagoen bide-zortasuneko zona delakoa irekita egongo da denbora guztian, bertatik oinezkoak eta zaintzako eta salbamenduko ibilgailuak pasatzeko.

Irisgarritasun-araudiarekin bat etorritik, oinezkoaren eskubideak lehentasuna izango du. Beraz, elementuak jartzerakoan beti libre utziko dira dendetako eta ezkaratzetako sarrerak.

3. Horrez gain, terrazak eta beste elementu batzuk jartzea debekatu ahal izango da bide-segurtasunagatik, obra publikoengatik edo Udalaren iritziz interes publikokoak izan daitezkeen antzeko beste arrazoi batzuentzat.

4. Debekatuta dago jardinetan elementuak jartzea.

5. Merkataritzako establezimenduetan debekatuta dago kanpoan saltzea.

6. Debekatuta dago establezimenduaren kanpoaldean megafoniako edo ikus-entzunezko elementuak jartzea, edo barruan dauden musikako ekipoa edo antzeko elementuak kanpora ateratzea.

7. Oro har, ostalaritzako establezimenduei bakarrik emango zaie bide publikoa mahaiekin eta aulkiekin okupatzeko baimena, bere jarduera motagatik establezimenduaren barruan mahaiak eta aulkiak dituztelako.

8. Eskatzaileak beste establezimendu baten pareko espazio publikoa okupatu nahi badu, okupazio hori eskatu ahal izango du. Udalak eskaera aztertu eta erabaki bat hartuko du ondorengo irizpideak haztatu eta interesdunari entzun ondoren: ea establezimenduan baimendutako jarduerarik badagoen, eta eskatutako okupazioak zein eragin izan dezakeen jarduera horretan.

9. Okupatutako azalera era jarraituan zenbatuko dira, fatxada desberdinetan egiten diren okupazioetan izan ezik. Baimendutako okupazioaren barruan moldatu beharko dira establezimenduaren sarbideak eta mahaien eta elementuen arteko zirkulazioa. Gutxienez establezimenduko sarreretako batek bete egin beharko ditu oinezko sarbide irisgarri baten baldintzak.

10. Baimentzen diren elementuek pertsona guztien irisgarritasuna bermatu behar dute, eta ez dute arazorik edo eragozpenik sortuko oinezkoen ibilbideetan.

11. Pare pare dauden bi establezimenduk udal lizentzia eskatzen badute erabilera publikoko lurzoru bera okupatzeko, Udal Zerbitzu Publikoek erabakiko dute espazioaren banaketa nola egin, egoera aztertu ondoren eta jarritako neurriekin bat etorrira.

## **10. artikulua. Okupazioa**

1.- Aurreko artikuluan jasotako baldintzei utzi gabe, lurzoru publikoan edo erabilera publikoko lurzoru pribatuan okupazioa egiten duten elementuek okupazio-baldintza hauek beteko dituzte:

- a) Oro har, instalazioak oinezkoentzako oztoporik gabeko pasabide-zerrenda jarraitu bat bermatu beharko du, une oro, gutxienez 2,00 metro zabalekoa (edo irisgarritasun-araudiak eskatzen duen zabalerakoa), indarrean dagoen legeriak jarritako irisgarritasun eta igarogarritasun irizpideak betez. Oinezkoentzako pasabide-zerrendaren zabalera handitu ahalko da, honako hauetan:
  - Oinezkoen joan-etorria batezbestekoa baino handiagoa den guneeetan.

- Espazio publikoak hartu behar dituen beste erabilera batzuk babesteko eta modu egokian eta proportzionatuan sustatzeko; esate baterako, atsedena, egonaldiak, zaintzak, topaketak edo haur-jolasak.
- b) Oinezkoentzako zerrenda hori, oro har, fatxaden ondoan egongo da.
- c) Gehienez ere heren bateko okupazioa izango dute 6 metro arteko zabalera duten espaloiek edo oinezkoentzako kaleek, eta %40koa gainerakoek.
- d) Arkupeak, oro har, horien zutabeen barrualdetik kanporantz soilik okupatu ahal izango dira, 13. artikuluan itsas pasealekuko arkupeei buruz adierazitako salbuespenetan izan ezik. Salbuespen gisa, arkupeak okupatzeko baimena eman ahal izango da, baldin eta ezinezkoa bada beste leku batean jartzea, kasuaren arabera jartzen diren baldintzekin.
- e) Ibilgailuen zirkulazioa duten kaleetan:
  - Bidearen eta espaloiairen artean aparkalekua dagoenean, baldin okupazioa espaloiairen eta aparkalekuaren mugan baimentzen bada, espaloiairen ertzean jarriko dira, luzetara, ertzetik gutxienez 80 zentimetroko tartea utzita, aparkatutako ibilgailuetako bidaiariaren sartu-irtenak ez oztopatzeko. Salbuespen gisa, espazioaren antolamenduak justifikatzen badu, tarte hori 30 zentimetrora murriztu ahal izango da. Kasu horietan, aparkalekuen antolamenduaren arabera, luzetara egiten den okupazioa mugatu ahal izango da, edo tarte hori handitu.
  - Babes-hesia baldin badago, gutxienez 10 zentimetroko tartea utziko da bere barne-proiektzio bertikaletik.
  - Espaloiairen eta bidearen artean ez baldin badago ez aparkalekurik ez babes-hesirik, tarte bat utzi beharko da, bide-motaren arabera, segurtasuna bermatzeko.

2.- Aurreko paragrafoan jarritakoa gorabehera, oinezkoen trafikoaren intentsitateak hala eskatzen duenean, oinezkoentzako gutxienezko ibilbide librea zabaldu ahal izango da, Mugikortasun Departamentuak aldeko txostena egin ondoren.

3.- Salbuespenezko zirkunstantziak direla-eta elementuak establezimenduaren fatxadaren ondoan kokatzea komeni bada, dela lerrokaduretan atzeraemanguneak edo elementu irtenak daudelako, dela lehendik dauden hiri-altzarien banaketagatik, dela Udaleko Zerbitzu Teknikoen iritziz behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuegatik, hala egitea baimendu ahal izango da proposatzen diren baldintza teknikoaren arabera. Nolanahi ere, oinezkoen joan-etorrietarako, egonaldirako eta espazio publikoko ongizatearekin, zaintzarekin edo bizikidetzarekin lotutako beste jardura batzuetarako baldintza onenak bermatuko dituen alternatiba hautatuko da.

4.- Jabari publiko itsas-lehortarrean jar daitezkeen instalazioen dimentsioek kostako gaietan indarrean dagoen araudiko maximoak errespetatuko dituzte.

## **11. artikulua. Oinezkoen kaleetako baldintzak**

1.- Mugikortasunaren udal ordenantzako II. eranskinean jasotakoak dira oinezkoen kaleak.

Gainera, orokorrean, elementuak gutxienez 3,50 metroko zabalera eta gutxienez 4,5 metroko altuera librea edo galiboa utzi beharko dute, su-hiltzaileen ibilgailuak, larrialdietakoak, poliziarenak arazorik gabe hurbildu ahal izan daitezkeen. Salbuespenez, kasu bakoitzaren berezitasunen arabera, zabalera txikiagoak onartu daitezke, behar bezala justifikatuta badaude, Udaltzaingoak txostena egin ondoren, eta betiere gutxienez bi metro zabaleko oztoporik gabeko pasabidea uzten bada oinezkoentzat.

2.- Udal Zerbitzu Teknikoek okupazioa egiten duten elementuen garapen-luzera mugatu ahal izango dute, oinezkoen ibilbidean sigi-sagarik ez gertatzeko.

3.- Elementuak establezimenduaren fatxadaren ondoan jarri beharko dira, pertsonen joan-etorrietarako bidea oinezkoen espazioaren erdialdean gera dadin. Salbuespen gisa, fatxadatik bereizita baimendu ahal izango dira, betiere okupazioaren alde bietan gutxienez 2,00 m-ko zabalera librea duten ibilbideak errespetatzen badira oinezkoentzat, hau da, gutxienez 2,00 m-ko zabalera librea egongo da establezimendura iritsi arte, eta beste 2,00 m pareko eraikinerira iritsi arte (edo irisgarritasun-araudiaren arabera eska daitezkeen

gutxieneko zabalera). Mugikortasun Departamentuak txostena egin ondoren, gutxieneko zabalera handiagoa eskatu ahal izango da, oinezkoen joan-etorriaren arabera.

4.- Oinezkoen kaleetan instalazio bat baino gehiago dagoenean, egoera orokorrean aztertuko da, kasu bakoitzaren berezitasunak kontuan izanda.

Ohiz kanpoko zirkunstantziengatik, komeni bada elementuak Udalak lehen adierazitako lekuan ez beste batean jartzea, toki horretan instalatzea baimendu ahal izango da, Udal Zerbitzu Teknikoek txostena egin ondoren eta bertan jarri dituzten baldintzen arabera. Nolanahi ere, oinezkoen joan-etorrietarako, egonaldiako eta espazio publikoko ongizatearekin, zaintzarekin edo bizikidetzarekin lotutako beste jarduera batzuetarako baldintza onenak bermatuko dituen alternatiba hautatuko da.

5.- Zama lanen ordutegia bukatu arte ezingo da bide publikoa okupatzeko elementurik jarri, oinezkoen eta larrialdiko ibilgailuen joan-etorria eragozten ez duten lekuetan izan ezik.

## **12. artikulua. Plazetako eta espazio libreetako baldintzak**

1.- Udalak ebatziko ditu espazio horietan elementuak jartzeko lizentzia-eskabideak, plaza edo espazio libre bakoitzaren ezaugarriak kontuan izanda, eta betiere ondorengo baldintza orokor hauen arabera:

- a) Fatxada-lerrokadura bakoitzean, gutxienez 2,00 metro zabaleko oztoporik gabeko pasabide-zerrenda utziko oinezkoentzat (edo irisgarritasun araudiaren arabera eska daitekeen gutxienekoa); edo, bestela, erdiko pasabide bat utzi beharko da, bertan dauden hiri-altzarien baldintzak kontuan izanda. Mugikortasun Departamentuak txostena egin ondoren, gutxieneko zabalera handiagoa eskatu ahal izango da, oinezkoen joan-etorriaren arabera.
- b) Plazaren eta espazio libreen azaleraren eta ezaugarrien arabera egingo da okupatu daitekeen espazioaren banaketa, beti ere kontuan hartuta espazio horiek bertan egoteko eginda daudela, eta zenbat establezimendu diren okupazio-eskaera egin dezaketenak.

2.- Instalazio asko egon daitezkeen plazak eta espazio libreak orokorrean aztertuko dira, kasu bakoitzaren berezitasunak kontuan izanda.

## **13. artikulua. Itsasertzeko pasealekuko baldintzak**

1.- 11 eta 12 artikuluetan jasotako baldintzei utzi gabe, okupazioa egiten duten elementuek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Dagokion fatxadaren lerrokaduran luzetara jarri beharko dira elementuak, eta pasealekuko farolek osatutako lerroraino, gehienez ere, zabaletara.
- b) Instalazioak 8,30 metroko espazio librea errespetatu beharko du, pasealekuaren ertzetik.
- c) Arkupeen zati bat okupatu ahal izango da, betiere gutxienez 2,00 metroko zabalera pasabide librea utzita fatxadatik edo arkupeko zutabeetatik.
- d) Kontuan izanda baimendutako ibilgailuek itsasertzeko pasealekura sartu behar izaten dutela, eta, berez, pasealeku izeneko zonatik ibiltzea guztiz debekatuta dutela, interesdunek ezingo dituzte elementuak jarri 10:00ak baino lehenago, eraikinetik hasita 8,00 metroko zabalera.

2.- Libre utzi beharreko gutxieneko ibilbidea handitu ahal izango du Alkatetzak, Udal Zerbitzu Teknikoek hala proposatuta.

3.- Guztiz debekatuta dago uretara hondakinak eta elementu kutsatzaileak botatzea; horretarako, behar diren neurri prebentiboak eta zuzentzaileak hartuko dira itsasora, hondartzara eta jabari publiko itsas-lurtarrek gainerako ondasunetara ezer ez isurtzeko.

4.- Zona honetarako ematen diren baimenak orokorrean aztertuko dira.

#### IV. KAPITULUA.- OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUEN TERRAZETAKO INSTALAZIO OSAGARRIEN BALDINTZAK

##### 14. artikulua. Ostalaritzako establezimenduen baldintzak

###### 14.1.- Baldintza orokorrak

1.- Oro har, okupazioak dagokion fatxadaren parean egingo dira. Edonola ere, libre utziko da ezkaratzetara eta beste establezimendu batzuetara sartzeko baoaren zabalera edo, gutxienez, horietara iristeko 1,80 metroko zabalera librea.

2.- Instalazioaren luzetarako garapena –Udalak onartutako perimetro-babesak sartuta– bat etorriko da establezimenduaren fatxadaren garapenarekin. Zeharka zenbat okupa daitekeen zehazteko, erabilera publikoaren aldetik espazio horrek nolako ezaugarriak dituen hartuko da kontuan, espazio horren jatorrizko funtzioa bermatuz.

3.- Salbuespenez, jarduera nagusiaren euskarri den lokalaren fatxadaren luzera gainditu ahal izango da, gehienez 12 metrotara arte, Udal Zerbitzu Teknikoek txostena egin ondoren eta horiek jarritako baldintzen arabera. Baldin, zona zehaztetan egiten diren azterketen ondorioz, zirkunstantziek hala eskatzen badute, lokalaren fatxada baino luzera txikiagoak jarri ahalko dira Alkatetzaren Dekretu bidez, saturatutzat jotzen diren zonetan.

Era berean, eta salbuespenez, okupazio ez jarraituak baimendu ahalko dira, bananduta dauden espazioetan edo establezimenduarenak ez diren beste fatxada batzuetan. Okupazio horiek kasu bakoitzaren berezitasunen arabera aztertuko dira, eta etenak izan daitezke, baldin eta baoaren zabalera librea edo 1,80 metroko zabalera uzten bada ezkaratzetara edo beste establezimendu batzuetara sartzeko eta horiekiko perimetro-babesak jartzen badira.

4.- Hainbat ostalaritza-establezimendu elkarren segidan badaude kale batean edo okupazio etenetan, gutxienez sarrera-baoaren zabalera edo 1,80 metroko oztoporik gabeko pasabidea utzi beharko dute ezkaratzetara sartzeko.

5.- Perimetro-babesak jartzea derrigortu ahalko da, baldin espazioa ez mugatzeak oztopatu egiten baditu oinezkoen ibilbideak eta ezkaratzetako edo beste erabilera batzuetako sarrerak. Alboetako babesak derrigorrezkoak izango dira, ezkaratzekin edo beste establezimendu batzuetako sarbideekin mugakide diren okupazioetan. Ezkaratzen kasuan, babes horiek ezkaratzaren bi aldeetan eskatu ahal izango dira, okupazioa alde bakarrekoa izanda ere.

6.- Elementu guztiak baimendutako azaleraren barruan kokatuko dira, eta, oro har, jaso egingo dira terrazaren funtzionamendu-ordutegitik kanpo. Salbuespenez, eta pasabidea eragozten ez badute eta garbiketa-lanak oztopatzen ez badituzte, onartu ahal izango da baimendutako elementuak bide publikoan pilatzea, horretarako adierazitako lekuan, baldin eta establezimenduak duen espazioagatik edo lokalaren erabileragatik ezin badira barruan jaso.

7.- Orokorrean, establezimenduaren izenaz gain, ezingo dira erabili publizitate komertzialarekin edo babesleen izenarekin apaindutako elementuak. Salbuespena egin ahal izango da horien neurriak edo begi-inpaktuak ez badu distortsio larririk eragiten kokatuta dauden hiri-paisaian, eta Udal Zerbitzu Teknikoek aldeko txostena egiten badute.

8.- Ezin da elementurik ainguratu, fatxadako toldoen eta egitura itxien kasuan izan ezik.

9.- Baimendutako azalera mahai-kopuru jakin bat jarri ahalko da, ondorengo moduluen arabera:

- 1 modulua: mahaia eta 4 aulki (1,50 m x 1,50 m)
- 2 modulua: mahaia eta 3 aulki (1,50 m x 1,00 m)
- 3 modulua: mahaia eta 2 aulki (1,50 m x 0,75 m)

- 4 modulua: mahai altua aulkirik gabe, gehienez 0,50 m-ko albo edo diametroa duena (1,00 m<sup>2</sup>).

Beste modulu batzuk ere proposatu ahalko dira, mahaiaren jarleku bakoitzarentzat 0,50 m<sup>2</sup>-ko okupazioa errespetatuta.

Okupazioa modulu-multzo batekin egin nahi bada, adierazitako moduluen dimentsioak 0,50 m handituko dira zuzeneko sarbiderik ez duten moduluen artean.

Horrez gain, eta oinezkoen ibilbideak ez zapaltzeko, aulkiak, lehentasunez, oinezkoen ibilbidearen noranzkoaren paraleloan jarriko dira, eta, fatxadako okupazioen kasuan, mahaiak, ahal dela, fatxadari atxikita.

10.- Mahaiak pilagarriak, irmoak eta egonkorak izango dira. Ezingo da upelik erabili, ez mahai gisa ezta alboetako babes gisa ere. Aulki pilagarriak, irmoak eta egonkorak erabili ahal izango dira. Mahaien gainak, nagusiki, erretxina trinkozkoak izango dira, eta oinak, aluminio lakatuzkoak, edo egitura eta gaina polipropileno trinkozkoak.

#### 14.2.- Alde Zaharreko oinezko kaleetako baldintzak

Horrelako kaleetan konposizio-elementu hauek eduki ditzakete:

- Mahaiak eta aulkiak
- Fatxadan ainguratutako toldoa, kalearen zabalerak uzten badu.
- Oin karratuko sonbrilak, zutoina erdian edo eszentrikoa dutenak.
- Terrazaren espazioa mugatzen duten perimetro-babesak, jardinerak eta/edo haize-babesak.

Gainera, terrazaren espazioaren barruan, berogailuak eduki ahalko dituzte, eta establezimenduko produktu-eskaintza iragartzeko euskarri bat ere bai.

#### 14.3.- Alde Zaharreko eta Munoako plazetako eta espazio libreetako baldintzak

Alde Zaharreko oinezko kaleetako baldintza berdina bete beharko dira.

Konposizio-elementu hauek eduki ahal izango dituzte:

- Mahaiak eta aulkiak
- Fatxadan ainguratutako toldoa, espazioaren zabalerak uzten badu eta oinezkoak ibiltzeko behar besteko altuerarekin. Lege Zaharren Enparantzan izan ezik; hor debekatuta baitago fatxadetan toldo ainguratuak erabiltzea. Fatxadan ainguratutako toldorik jarri ezin bada, oin karratuko sonbrilak jarri ahalko dira, zutoina erdian edo eszentrikoa dutenak.
- Terrazaren espazioa mugatzen duten perimetro-babesak, jardinerak eta/edo haize-babesak.

Gainera, terrazaren espazioaren barruan, berogailuak eduki ahalko dituzte, eta establezimenduko produktu-eskaintza iragartzeko euskarri bat ere bai.

Instalazioa osatzen duten elementu guztiak mugikorak izango dira, eta terrazarako eremua libre utziko da ekitaldi publikoak egiteko eta dagokion gertakariak hala eskatzen duenean.

Irudi homogenea lortzeko, erabiliko diren materialak eta/edo koloreak antzekoak izango dira terraza bakoitzaren barruan.

Munoa plazan, fatxada erabili ezin duten establezimenduei espazio bat esleituko zaie plazan, baldintza hauetan:

- Establezimenduaren fatxadari atxiki gabeko espazioa okupatu ahal izango da, baina egitura finkorik gabe.
- Perimetroko itxiturak jardinera eta/edo haize-babesen bidez egingo dira, eta oin karratuko sonbrilekin estali ahalko dira (zutoina erdian edo eszentrikoa dutenak).
- 4,00 m-ko zerrenda librea bermatuko da aurreko balaustadarekiko eta malekoira jaisteko eskailerarekiko.

#### 14.4.- Alde Zaharretik kanpoko oinezko plazetako eta pasealekuetako baldintzak

Alde Zaharreko plazetarako jarritako baldintzak beteko dituzte, baina ez instalazioaren mugikortasunari buruzko baldintzak. Gainera, fatxadan ainguratutako toldorik jarri ezin bada, bi isurkiko toldoak jartzea baimenduko da.

Plazako espazio bat okupatu ahal izango da, betiere jolasguneak eta berdeguneak oztopatzen ez badira eta oinezkoen joan-etorria bermatzen bada, gutxienez 2,00 m-ko zabalerakoa edo irisgarritasun-araudiaren araberakoa.

Perimetroko itxiturak jardinera eta/edo haize-babesen bidez egingo dira, eta oin karratuko sonbrilekin (zutoina erdian edo eszentrikoa dutenak), isurki bateko toldoekin edo bi isurkiko toldoekin estali ahalko dira.

Bi establezimenduk izkina partekatzen badute, udal zerbitzu teknikoek aztertuko dute terrazen okupazioa.

Sagasti plazan, fatxada erabili ezin duten establezimenduei espazio bat esleituko zaie plazan, baldintza hauetan:

- Establezimenduaren fatxadari atxiki gabeko espazioa okupatu ahal izango da, baina egitura irekirik gabe (bi isurkiko toldoak).
- Perimetroko itxiturak jardinera eta/edo haize-babesen bidez egingo dira, eta oin karratuko sonbrilekin estali ahalko dira (zutoina erdian edo eszentrikoa dutenak), udal zerbitzu teknikoek aztertu ondoren.

#### 14.5.- Alde Zaharretik kanpo oinezkoentzat ez diren kaleetako baldintzak

Oinezkoentzako ez diren kaleetako espaloietan ezingo da terrazarik jarri, baldin eta espaloiak 2,90 m baino gutxiagoko zabalera baldin badu. Kasu horietan, salbuespen gisa eta Mugikortasun Departamentuak aldeztu aurretik txostena eginda, baimendu ahal izango da establezimenduak parean dituen aparkalekuak okupatzea, halakorik balego.

Zabalera nahikoa duten espaloietako terrazek konposizio-elementu hauek eduki ahalko dituzte:

- Mahaiak eta aulkiak
- Fatxadan ainguratutako toldoa, kalearen zabalera uzten badu.
- Oin karratuko sonbrilak, zutoina erdian edo eszentrikoa dutenak.
- Terrazaren espazioa mugatzen duten perimetro-babesak, jardinerak eta/edo haize-babesak.

Gainera, terrazaren espazioaren barruan, berogailuak eduki ahalko dituzte, eta establezimenduko produktu-eskaintza iragartzeko euskarri bat ere bai.

#### 14.6.- Itsasertzeko pasealekuko baldintzak

##### 14.6.1.- Arkuperik gabeko zona

Konposizio-elementu hauek eduki ahal izango dituzte:

- Mahaiak eta aulkiak

- Fatxadan ainguratutako toldoa, espazioaren zabalerak uzten badu eta oinezkoak ibiltzeko behar besteko altuerarekin. Fatxadan ainguratutako toldorik jarri ezin bada, oin karratuko sonbrilak jarri ahalko dira, zutoina erdian edo eszentrikoa dutenak.
- Terrazaren espazioa mugatzen duten perimetro-babesak, jardinerak eta/edo haize-babesak.

Gainera, terrazaren espazioaren barruan, berogailuak eduki ahalko dituzte, eta establezimenduko produktu-eskaintza iragartzeko euskarri bat ere bai.

Instalazioa osatzen duten elementu guztiak mugikorrek izango dira, eta terrazarako eremua libre utziko da ekitaldi publikoak egiteko eta dagokion gertakariak hala eskatzen duenean.

#### 14.6.2.- Arkupedun zona.

Hauxe da paseoaren zona zabalena, eta negozio gehienak bertan pilatzen dira. Pilaketa hori dela-eta, beharrezkoa da gainerako zonetatik bereiztea.

Terrazak antolatzeko, 1,50 metroko pasillo bat sortuko da terrazen artean.

Konposizio-elementu hauek eduki ahal izango dituzte:

- Mahaiak eta aulkiak
- Oin karratuko sonbrilak, euskarria erdian edo eszentrikoa dutenak, ondo antolatuta, eta altura, forma eta kolore homogeenak dituztenak.
- Terrazaren espazioa mugatzen duten perimetro-babesak, jardinerak eta/edo haize-babesak.

Aurrekoaz gain, terrazaren espazioaren barruan, berogailuak eduki ahalko dituzte, eta establezimenduko produktu-eskaintza iragartzeko euskarri bat ere bai.

Instalazioa osatzen duten elementu guztiak mugikorrek izango dira, eta terrazarako eremua libre utziko da ekitaldiren batek hala eskatzen duenean.

### 15. artikulua. Ordutegia eta garbiketa, ostalaritzako establezimenduei lotutako okupazioen funtzionamenduan

Hauek izango dira zona bakoitzeko ordutegiak:

#### a) Ordenantza fiskalean mugatutako 1 zona:

Oro har, mahaiak eta aulkiak jasotzeko ordutegia, ostiral, larunbat eta jai-bezperatan: **02:00etan**; eta gainerako egunetan **01:00ean**.

Barren plaza eta Patxiku kalea salbuetsita daude; horiek ordutegi hauek izango dituzte:

- 1 denboraldia: mahaiak eta aulkiak jasotzeko ordutegia, ostiral, larunbat eta jai-bezperatan: **01:00ean**; gainerako egunetan: **00:00etan**.
- 2 denboraldia: mahaiak eta aulkiak jasotzeko ordutegia, ostiral, larunbat eta jai-bezperatan: **00:00ean**; gainerako egunetan: **23:30etan**.

1 zona					
Orokorra		Barren plaza eta Patxiku kalea			
1 eta 2 denboraldiak		1 denboraldia		2 denboraldia	
Ostiral, larunbat eta jai-bezperak	Gainerako egunak	Ostiral, larunbat eta jai-bezperak	Gainerako egunak	Ostiral, larunbat eta jai-bezperak	Gainerako egunak
2:00	1:00	1:00	00:00	00:00	23:30

**b) Ordenantza fiskalean mugatutako 2 zona:**

- 1 denboraldia: mahaiak eta aulkiak jasotzeko ordutegia, ostiral, larunbat eta jai-bezperatan: **01:00ean**; gainerako egunetan: **00:30ean**.
- 2 denboraldia: mahaiak eta aulkiak jasotzeko ordutegia, ostiral, larunbat eta jai-bezperatan: **00:30ean**; gainerako egunetan: **23:30ean**.

2 zona			
1 denboraldia		2 denboraldia	
Ostiral, larunbat eta jai-bezperak	Gainerako egunak	Ostiral, larunbat eta jai-bezperak	Gainerako egunak
1:00	00:30	00:30	23:30

Zonifikazioa, une bakoitzean, UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK arautzen dituen Ordenantza Fiskalean kontzeptu horretan jarritakoa izango da.

Ordutegien araubide orokorra Alkatetzaren ebazpen bide aldatu ahal izango da.

Terrazak ordutegi horren barruan kenduko dira.

Mahaiak eta aulkiak ezingo dira jarri 8:00ak arte, aparteko baimena izan ezean.

Nolanahi ere, mahaiak eta aulkiak jasotzeko jarritako ordutegia alde batera utzita, Barne Sailak jarritako ordutegiak errespetatu beharko dituzte establezimenduek, beren kategoriaren arabera, eta ezingo dituzte jarrita eduki establezimenduaren itxiera-ordutik aurrera.

**16. artikulua. Terrazetako instalazio osagarriak**

Artikulu honen ondorioetarako hauexek izango dira terrazaren instalazio osagarriak:

1. Perimetroko babesak
2. Sonbrilak eta terrazari lotutako toldoak
3. Egiturak:
  - 3.1. Egitura irekiak (bi isurkiko toldoa)
  - 3.2. Egitura itxiak
4. Galtzadako aparkaleku gainerako instalazioa

**1.- PERIMETROKO BABESAK.**

Terrazak jarritakoan okupatzen diren azalerak perimetro-babesen bidez mugatu ahalko dira, eta barrutia markatuta geratu.

Baldintza hauek beteko dituzte:

- a) Jardinerak edo haize-babesak izan daitezke.
- b) Inguruaren ezaugarriekiko aproposak izango dira beti, eta horien egokitasuna udal zerbitzu teknikoaren oniritziaren mende egongo da.
- c) Diseinuak lehentasuna emango dio bistak garbi ikusteari eta herriaren ikuspegia ez ezkutatzeari.
- d) Ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen erraz detektatzeko eta identifikatzeko modukoak izango dira.
- e) Ezingo dute gainditu baimendutako okupazio-azalera.
- f) Mugikorrek eta erraz desmuntatzekoak izango dira. Gurpilak izango dituzte lekuz aldatzeko eta kokatzeko, bai eta mugitzaerakoan zaratarik ez sortzeko elementuak ere. Ezingo dira lurtean edo paretean ainguratu, eta, helduta geratzeko, orokorrean, barnealdean kontrapisu bat jarriko zaie. Horrek bermatuko du elementuaren egonkortasuna. Baimenaren titularra arduratuko da elementuaren egonkortasuna bermatzeaz.



- g) Gutxienez 0,90 m-ko altuera izango dute, eta gehienez 1,50 m-koa, altuera finkoa bada, eta 2,20 m-koa, babes luzagarrien kasuan. Arkupeekin muga egiten dutenek izan ezik; horiek gehienez 1,20 metrokoak izango dira. Edonola ere, 90 cm-tik gorako altueran gardenak izango dira. Jardineretan jartzen diren elementuek ere gardentasuna bermatu beharko dute.
- h) Materialak bat etorriko dira inguruarekin eta terrazan dauden gainontzeko elementuekin, eta udal zerbitzu teknikoek ontzat eman beharko dituzte. Nagusiki, corten altzairuzkoak, altzairu lakatuzkoak edo aluminio lakatuzkoak izango dira. Haize-babesak ixteko materiala metakrilatoa edo segurtasun-beira gardena izango da, deformazioak saihesteko sekzio nahikoa duena; paramentu gardenak partizioak izan ditzake edo ez.
- i) Fatxadara itsatsitako okupazioen kasuan, etenik gabeko sekzioa izango dute, eraikuntzaren lerrokadurei jarraipena emanaz, ikusmen-desgaitasuna dutenei arriskurik ez sortzeko. Ikusmen-desgaitasuna dutenek detektatzeko modukoak izango dira (bai itsuek bai ikusmen murriztua dutenek), eta makila bidez detektatu ahal izango dira; elementu gardenak badira, irisgarritasunari buruzko araudiaren eskakizunak bete beharko dituzte seinaleei dagokienez.

## 2.- SONBRILAK ETA TERRAZARI LOTUTAKO TOLDOAK

### 2.1.- Sonbrilak:

- Oinezkoen pasabide bat estaltzen duten toldoarekin mugakide den sonbrilarik ezingo da jarri; hau da, terrazarekin lotuta ez dauden behe-solairuko toldoekin muga egiten duten sonbrilak. Horrela, tunel efektua saihestuko da.
- Karratuak izango dira, zutoina erdian edo eszentrikoa dutenak. Euste-plataformak lauak izango dira (estropezuak eragiten dituzten koskarik gabekoak), edo 0,75 m eta 0,90 m arteko altuerako elementuak.
- Ahal dela, material fonoxurgatzailearekin egindakoak izango dira.

### 2.2.- Terrazari lotutako toldoak:

Oihal edo olanaz egindako estalkia, fatxadara itsatsitako terraza babesteko zabaltzen dena eta jasota geratzeko sistema duena. Orokorrean, terrazarekin okupatzeko baimena duen azalera estaltzeko baimentzen dira.

Lege Zaharren Enparantzan debekatuta daude.

Baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Orokorrean, toldoaren luzera gehienez ere establezimenduaren fatxadaren zabalera bestekoa izango da, eta gehienezko hegala, berriz, bat etorriko da baimendutako okupazioaren zeharkako garapenarekin.
- b) Terraza jarrita dagoenean, altuera minimoa 2,20 m-koa izango da, edozein puntutan.
- c) Gehienezko altuera beheko solairuaren sabaiko forjatua izango da. Toldoak zabaldu eta jasotzeko elementuak eta horien euskarriak bakarrik jarri ahal dira baxuago, eta fatxada-lerrotik gehienez ere 0,20 m aterata.  
Oinezkoen pasabide bat estaltzen duten behe-solairuko toldoak ezingo dira mugakide izan ez sonbrilekin ez bi isurkiko toldoekin, tunel-efektua saihesteko. Salbuespenez, fatxadatik banandutako terrazen kasuan, gehienez 4,00 metroko hegala duten toldoak baimendu ahal dira, beti ere 5,00 metroko luzera gaintzen ez badute. Oinezkoen pasabidean gutxieneko altuera librea 2,50 metrokoa izango da, eta gutxieneko zabalera librea 2,50 m-koa. Ezaugarri horiek dituzten elkarren segidako toldoak ezingo dira izan 5,00 m baino luzeagoak.
- d) Alboak ezingo dira itxi toldoekin edo zintzilikatutako beste elementu batzuekin. Terrazaren alboak babesteko, artikulua honen 1. atalean perimetro-babesei buruz jarritakoa bete beharko da.
- e) Terraza jarrita ez dagoenean, toldoak erabili ahal izango dira establezimenduaren barnean itzala lortzeko. Horrelakoetan, Plan Orokorrean beheko solairuetako toldoentzat xedatutakoa hartuko da kontuan.
- f) Ahal dela, material fonoxurgatzailearekin egindakoak izango dira.

### 3.- EGITURA IREKIAK (BI ISURKIKO TOLDOA) ETA ITXIAK

Oro har, terrazak irekiak izango dira. Horiek babesteko, egitura irekiak baimendu ahal izango dira (bi isurkiko toldoak), ordenantza honek adierazten dituen kasuetan. Salbuespenez, egitura itxiak baimendu ahalko dira.

Berariaz debekatuta dago egitura irekiak (bi isurkiko toldoak) eta egitura itxiak jartzea toki hauetan:

- Munoa plaza
- Itsasertza
- ZHAPOko 1 eremua – Alde Zaharra –
- Sagasti plaza

Salbuetsita daude egitura irekiak, baldin eta egunero jasotzeko sistemaren bat badute, eta establezimenduaren titularrak bermatzen badu horiek gordetzeko espazioa duela terrazaren funtzionamendu-ordutegitik kanpo. Itsasertzean, udaldian, salbuespen gisa eta pasabidea oztopatzen ez bada eta garbiketa-lanak eragozten ez badira, onartu daiteke baimendutako elementu horiek bide publikoan pilatzea, multzokatuta eta berariaz adierazitako lekuan.

Era berean, udal agintaritza eskudunak instalazio horiek jartzeko eskaera ukatu ahal izango du honako kasu hauetan:

- a) Bide-segurtasunerako kaltegarria izatea (ikusmena murriztea, gidariak distraitzea, etab.) edo oinezkoen zirkulazioa nabarmen zailtzea.
- b) Egitura horiek jartzea komeni ez denean, espazioak erabilera anitzak dituelako eta urtean zehar hainbat ekitaldi eta/edo jarduera garatzen direlako.
- c) Hurbileko eraikinen eta lokalen segurtasunean (ebakuazioa) eragina izatea.
- d) Ingururako formalki desegokia denean, toki horrekin bat ez datorrenean, edo hiri-paisaiaren irakurketa zuzena zailtzen duenean.

Baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Orokorrean, egitura irekiak eta itxiak jartzeko baimenak urtebetekoak izango dira. Baimena denboraldi baterako eskatzen bada, elementu guztiak bide publikotik kendu beharko dira erabiltzen ez den denboraldian.
- b) Terrazarentzat baimendutako okupazioaren azalera edukiko du gehienez. Dena dela, mugatu ahal izango da, baldin eta udal zerbitzu teknikoek hala justifikatzen badute.
- c) Gehienezko altuera bat etorriko da bere eraikinaren beheko solairuaren sabaiko forjatuaren azpialdearen altuerarekin. Eta altuera minimoa 2,20 metrokoa izango da baimendutako okupazio-azaleraren edozein puntutan. Elementu guzti-guztiak baimendutako okupazio-azaleraren barruan egon beharko dira.
- d) Ezin izango dira oinezkoen pasabide bat estaltzen duten toldoekin mugakide izan, hau da, terrazarekin lotuta ez dauden behe-solairuko toldoekin, tunel-efektua saihesteko.
- e) Terraza jarrita ez dagoenean, estaltzeko elementu guztiak handik kendu egin beharko dira, edo sistema baten bidez jaso.
- f) Terrazaren alboak babesteko, artikulua honen 1. atalean perimetro-babesei buruz jarritakoa bete beharko da.
- g) Terrazaren erabilera-ordutegitik kanpo bide publikoan utzi nahi diren elementuak, ahal den guztietan, inguruko hiri-altzarien edo hiri-ekipamenduen lerrokaduran jasoko dira.
- h) Diseinu ireki berezia izango dute. Lehentasuna emango zaio bistak garbi ikusteari eta herriaren ikuspegia ez ezkutatzeari. Egiturazko elementuak batez ere altzairuzkoak izango dira (herdoilgaitza, burdinurtuzkoa...), eta pintatuta badaude, pintura oxiron motakoa izango da, edo bestela, inguruko hiri-altzarietan erabilitakoaren berdina.
- i) Oinezkoen kale edo plazetan, orokorrean aztertuko dira, kasu bakoitzaren berezitasunak kontuan izanda.

#### 3.1.- EGITURA IREKIAK (BI ISURKIKO TOLDOA)

Terrazak babesteko elementuak dira. Ordenantza honetan jasotako kasuetan, ordenantza honen arabera mugatutako espazioa oihal, olana edo antzeko beste material batzuekin estali ahal izango da. Biltzeko sistema bat izan beharko dute, eta bi puntutan bermatutako egituren gainean jarri beharko dira.

Fatxadatik aldendutako terrazetan eta fatxadari edo arkupeari lotutakoetan baimendu ahalko dira.

Ezingo dira lurtean ainguratu, eta helduta geratzeko, orokorrean, barnealdean kontrapisu bat jarriko zaie, elementuaren egonkortasuna bermatzeko. Baimenaren titularra arduratuko da elementuaren egonkortasuna bermatzeaz.

Mugikorrak eta erraz desmuntatzekoak izango dira.

Ahal dela, material fonoxurgatzailearekin estaliko dira.

### 3.2.- EGITURA ITXIAK

Instalazio finkoak dira, erraz desmuntatu daitezkeenak. Estalkiari eusteko egitura bat eta albo-itxiturak izango dituzte. Halaber, zoladura desmuntagarria eduki dezakete.

Horrelako instalazioak salbuesenez baimendu ahal izango dira, eraikinen lerrokaduretan atzeraemanguneak badaude edo salbuesenezko zirkunstantziek kokapen hori justifikatzen badute.

Jabari publikoko emakidei aplikatu beharreko araudiarekin bat etorriko dira instalazio horien baimenak.

Orokorrean, hauek dira baldintzak:

- a) Gehienezko luzera establezimenduaren fatxadarena izango da, edo horren arabera.
- b) Instalazioak oinezkoen ibilbide nagusiei eragiten badie, horien zabalera librea ezingo da 5,00 metrokoa baino txikiagoa izan.
- c) Bere eraikinaren beheko solairuaren sabaiko forjatuaren azpialdearen altuerarekin bat etorriko da gehienezko altuera. Altuera minimoa, berriz, 2,20 metrokoa izango da.
- d) Elementu guzti-guztiak baimendutako okupazio-azaleraren barruan egon beharko dira.
- e) Zoladura desmuntagarria baldin badu, urbanizazioaren estolda-zuloak eta kutxatilkak erregistroak egiteko moduan geratu beharko dira.
- f) Diseinu ireki berezia izango dute. Lehentasuna emango zaio bistak garbi ikusteari eta herriaren ikuspegia ez ezkutatzeari. Egiturazko elementuak nagusiki altzairuzkoak izango dira (herdoilgaitza, burdinurtuzkoa...), eta pintatuta badaude, pintura oxiron motakoa izango da, edo, bestela, inguruko hiri-altzarietan erabilitakoaren berdina.
- g) Udal zerbitzu teknikoek baldintza bereziak jarri ahal izango dituzte kasu bakoitzean. Horretarako, instalazio bat baino gehiago dauden zonak orokorrean aztertuko dira, kasu bakoitzaren berezitasunak kontuan izanda.
- h) Instalazioen baldintzak:
  - Aireztapena naturala izango da. Ezingo da klimatizazio-instalaziorik jarri.
  - Elektrizitate-instalazioa: instalazio elektrikoa baimendu ahal izango da, bai argiteriarentzat baita erradiadoreak erabiltzeko ere. Instalazio elektriko hori establezimenduko instalaziora konektatuta egongo da. Terrazaren konexioa ezin bada eraikinean integratu, lurzoru publikoaren azpitik konektatuko da instalazio elektrikorikora. Instalazioa egiterakoan arau hauek beteko dira:
    1. Instalazioek bere puntu guztietan beteko dute indarrean dauden arau hauetan jarritakoa: Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoa eta Instrukzio Tekniko Osagarriak. Instalatzaileak dagokion ziurtagiria egin beharko du.
    2. Lokaleko terraza bakarrik argizatuko du, auzokide, oinezko edota ibilgailuak itsutu gabe edo bestelako eragozpenik eragin gabe.
    3. Establezimenduaren berezko egiturak erabiliko dira argiei eusteko, eta inoiz ez zuhaitzak edo hiri-altzariak (hala nola, eserlekuak, farolak, seinaleak, eta abar). Egitura horiek segurtasun-elementuak izango dituzte (bai mekanikoak bai elektrikoak).

4. Eroaleak ikusten ez diren kanalizazioetan gordeko dira, lur-azpian edo eraikinean integratuta.
5. Instalaturako aparatuak, kokapen-altuera dela-eta, itxiak izango dira eta IP-65 babes-maila eduki beharko dute, UNE 20324 arauaren arabera. Establezimenduaren koadro orokorrera konektatuta egongo dira, eta, gainera, kontaktu zuzen edo zeharkakoen aurkako babes-sistemak eduki beharko dituzte, piztu eta itzaltzeko balio dutenak.
6. Terrazaren erabilera-ordutegian zehar bakarrik egongo dira argiak piztuta.
7. Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoan adierazitako maiztasunarekin ikuskatuko da instalazio elektrikoa, eta ikuskapen horren kopia bat emango zaio baimena emateko eskumena duen organoari.

#### 4.- GALTZADAKO APARKALEKU GAINEKO INSTALAZIOA

- a. Bi metro eta laurogeita hamar zentimetrotik (2,90 m) beherako espaloiak dituzten kaleetako ostalaritza-establezimenduek baimena eskatu ahal izateko, galtzadan, ondoko aparkaleku baten gainean. Aparkalekuen gaineko baimenek Mugikortasun Departamentuaren aldeko txostena eduki beharko dute.
- b. Okupazioa ez bada urte osokoa, denboraldiaren amaieran elementu guztiak kenduko dira, eta eragindako zona ondo-ondo garbitu beharko da.
- c. Okupazioaren luzera, gutxi gorabehera, establezimenduaren fatxadarena izango da, parean mugatuta dauden aparkalekuekin bat eginez. Okupazioaren zeharkako luzera eta aparkalekuarena berdin-berdinak izango dira. Plataforma espaloiairen ertzean, luzetara, jarri beharko da, eta gutxienez 30 cm-ko tartea utziko da galtzada ertzetik eta aldameneko aparkalekuetatik.
- d. Atxikitako oholtza baten gainean eta espaloiairen altuera berean jarriko dira derrigorrez. Oholtzak ura ebakutzeko sistema bat edukiko du, eta sistema horrek ez du oztopatuko urbanizazioan lehendik jarrita dagoen jasotze-sistema. Urbanizazioaren estolda-zuloak eta kutxatilkak erregistroak egiteko moduan geratu beharko dira.
- e. Perimetro-babesa edukiko du, okupaturako gunea babesteko. Babes horiek, beraz, perimetro-babesentzat adierazitako baldintzak beteko dituzte. Segurtasun-irizpideekin eraikiko dira, ibilgailuen talketatik babesteko. Izkinetan kaptafaroak jarriko dira.
- f. Zabalerak uzten badu, estali ahal izango da egitura ireki batekin (bi isurkiko toldoa) edo sonbrilekin. Horiek ezingo dira mugakide izan fatxadan ainguratutako toldo batekin, baldin toldoak oinezkoen pasabide bat estaltzen badu. Ezingo dira estali fatxadako toldoarekin, baldin toldoak oinezkoen pasabide bat estaltzen badu.
- g. Oholtza bera eta azpiko zoladura garbi-garbi egongo dira denbora guztian. Lizentziaren titularrari dagokio okupaturako azaleraren garbiketa egitea. Betebehar hori betetzen ez badu, udal zerbitzu teknikoek egingo dute, pertsona arduradunaren kontura.
- h. Terrazako sarrera espaloitik egin behar da derrigorrez.
- i. Mota horretako terrazak udal-titulartasunekoak ez diren bideen ondoan baimendu aurretik, administrazio eskudunaren baimena lortu beharko da.

#### 17. artikulua. Instalazio elektrikoaren baldintzak

##### 1.- Instalazio elektrikoaren baldintza orokorrak:

- Instalazio elektriko hori establezimenduko instalaziora konektatuta egongo da.
- Eroaleak ikusten ez diren kanalizazioetan gordeko dira, lur-azpian edo eraikinean integratuta. Ezingo da aireko linearik jarri.

- Instalazioek bere puntu guztietan beteko dute indarrean dauden arau hauetan jarritakoa: Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoa eta Instrukzio Tekniko Osagarriak.
- Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoan adierazitako maiztasunarekin ikuskatuko da instalazio elektrikoa.

## 2.- Argiztapena:

- Terraza girotzeko argiztapena bakarrik baimenduko da.
- Ezingo da, inondik ere, argiteria publikoaren argiztapen-maila gainditu.
- Auzokoak, oinezkoak edo ibilgailuak ez dira argiekin itsutuko, eta ez zaie beste eragozpenik eragingo.
- Ezingo da kolore oso deigarri, fosforito edo itsugarrikerik erabili.
- Hiriguneko Plan Bereziko printzipioen kontrako argi apaingarririk ezingo da jarri.
- Argiak instalazioan edo altzarietan sartuta egongo dira. Argiei eusteko, establezimenduaren egiturak erabiliko dira. Egitura horiek segurtasun-elementuak izango dituzte (bai mekanikoak bai elektrikoak).
- Instalaturako aparatuak, kokapen-altuera dela-eta, itxiak izango dira eta IP-65 babes-maila eduki beharko dute, UNE 20324 arauaren arabera. Establezimenduaren koadro orokorrera konektatuta egongo dira, eta, gainera, kontaktu zuzen edo zeharkakoen aurkako babes-sistemak eduki beharko dituzte, piztu eta itzaltzeko balio dutenak.
- Terrazaren erabilera-ordutegian bakarrik egongo dira argiak piztuta.
- Argien potentzia 1 KW baino handiagoa bada, kanpoko argiteria instalazioen energia eraginkortasunaren araubidea betetzen dela justifikatu beharko da.
- Jarritako potentzia 1 KW baino txikiagoa bada, instalazioa energiaren aldetik eraginkorra dela eta ez duela ez itsutuko ez eta argi-kutsadurarik eragingo justifikatuko da.

## 18. artikulua. Berogailuen baldintzak

- Berogailuek CE adostasun-aitorpena eduki beharko dute.
- Ezingo da gasezko berogailurik erabili edozein higiezinaren fatxadatik edo beste zenbait elementutatik (zuhaitzak, farolak...) 2,00 metro baino gutxiagoko distantzian, edo ekoizleak gomendatutakoa baino distantzia txikiagoan.
- Lizentzia edo baimenaren titularrak izango dira berogailuen zaintza eta erabilera egokiaren arduradunak, egoera onean eta segurtasun-baldintzetan egon daitezen.
- Ordenantza Fiskaletan aurreikusitako 2 denboraldira mugatzen da bere erabilera, eta, salbuespenez, tenperaturek hala justifikatzen duten egunetara.
- Berogailuak ere sartzen dituen erantzukizun zibileko aseguruak aurkeztu beharko da.
- Ezingo da gasezko berogailurik erabili egitura itxietan.

## 19. artikulua. Ostalaritzako terrazen baldintza estetikoak

Altzariak, nagusiki, material hauetakoak izango dira: corten altzairua, altzairu lakatua, aluminio lakatua, erretxina trinkoa, polipropileno trinkoa, egurra eta metakrilato gardena. Altzariak arrastaka eramaten direnean edo kolperen bat izaten dutenean zaratarik ez ateratzeko moduko gomazko elementuak jarriko zaizkie oin guztietan.

Bai eskaera berrietan bai berrikuntza-eskaeretan adierazi egin behar dira jarri nahi diren altzarien eta horien oinetako gomazko elementuen ezaugarriak; horiek udal zerbitzu teknikoaren oniritzia jaso beharko dute.

Alkatetzaren Dekretu bidez zehaztu ahal izango da terrazetako altzarietan nolako elementuak jarri ahaliko diren.

## V. KAPITULUA.- MERKATARITZAKO ESTABLEZIMENDUETAKO ELEMENTUEN BALDINTZAK

### 20. artikulua. Merkataritzako establezimenduen baldintzak

- 1.- Ibilgailuen eta oinezkoen joan-etorria oztopatzen edo eragozten ez duten zonetan bakarrik baimenduko dira.
- 2.- Lehenetasuna emango zaio bistak garbi ikusteari eta herriaren ikuspegia ez ezkutatzeari. Elementuak bat etorriko dira kokatuko diren hiri-espazioaren inguruarekin.
- 3.- Erabilera publikoko espazioaren ezaugarrien arabera egingo da okupazioa; espazio horren jatorrizko funtzioa bermatuko da beti.
- 4.- Instalazioaren luzetarako garapena bat etorriko da establezimenduaren fatxadaren luzerarekin. Ez du gaindituko establezimenduak okupatutako fatxadaren luzera.
- 5.- Jartzeko garaian, linealtasunari emango zaio lehenetasuna, bai multzoarekiko bai altzari publiko, zuhaitz eta terrazekiko, oinezkoen joan-etorriak zuzenak eta sigi-sagarik gabeak izan daitezzen.
- 6.- Ez da baimentzen jakiak edo beste objektu batzuk kaxen edo antzekoen gainean pilatuta erakustea (horiek ezkutuan gelditzen ez badira, behintzat). Ordenantza honetan aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten erakustegiak erabili behar dira.

## **21 artikulua. Merkataritzako establezimenduei lotutako okupazioen funtzionamendu-ordutegia**

Merkataritzako establezimenduei baimentzen zaizkien elementuak establezimenduaren funtzionamendu-ordutegian egon daitezke kanpoan jarrita, eta, gehienez ere, 8:00ak eta 22:00ak bitartean. Ordutegi hori bukatutakoan jaso egingo dira, eta bide publikoa garbi utziko da.

Oro har, establezimendua itxita dagoenean ezingo da elementurik eduki espazio publikoan. Establezimendua itxita dagoenean, arduradunak bere instalazioetan gorde beharko ditu elementu horiek. Salbuespen gisa eta pasabidea oztopatzen ez bada eta garbiketa-lanak eragozten ez badira, onartu daiteke baimendutako elementuak bide publikoan uztea.

Elementu horien ondorioz eragozpenak sortzen badira, egoera aztertuko da, eta Alkatetzak aukera izango du, egoki iruditzen bazaio, okupazioaren ordutegia aldi baterako edo behin betiko mugatzeko edo, bestela, lizentzia indargabetzeko eta instalazioa ken dezatela agintzeko.

Gainera, Alkatetzaren Dekretu bidez gune jakinetarako ordutegi espezifikoak zehaztu ahalko dira, egokitzen jotzen bada.

## **22. artikulua. Merkataritzako establezimenduetako elementuak**

- 1.- Merkataritzako establezimenduek salmenta-gaiak eta jardueraren publizitate-elementuak jar ditzakete espazio publikoan erakusgai edo bide publikoaren beste okupazio mota batzuk egin ditzakete (betiere merkataritza-jarduerarekin lotutakoak).
- 2.- Sekzio jarraitua izango dute, eta proiektzio horizontala lurreraino iritsiko da, ikusmen arazoak dituzten pertsoneri arriskurik ez sortzeko.
- 3.- Oro har, zeharretara gehienez ere 0,90 metro hartuko dira, eta jarriko diren elementuen altuera 0,80 metro eta 1,00 metro artekoa izango da. Fatxadara itsatsitako okupazioak baimentzen badira, 1,80 metroko altuerako elementuak baimendu ahal izango dira, eta zeharretara 0,40 metro.
- 4.- Beste okupazio batzuk baimendu ahal izango dira, inguruaren berezitasunen arabera, udal teknikariak txostena egin eta gero, eta jartzen diren mugekin.
- 5.- Konposizio estetikoak egokia izango da, eta konposizio fisikoa zorrotza, horrela bermatuko baita pertsona guztien irisgarritasuna eta oinezkoen ibilbideetan eragozpenik edo distortsiorik ez sortzea. Edonola ere,

eragindako erabilera publikoko espazio horrek 2,00 metroko ibilbide irisgarria bermatu beharko du beti oinezkoentzat.

6.- Bide publikoa okupatzen duten erakustegiak eta beste edozein elementu behar bezala pintatuta edo korrosiotik babestuta egongo dira, guztiz garbi eta ondo zainduta.

7.- Elementuok ezingo dira finkoak izan; hortaz, eskuz mugitu ahal izango dira, arrastaka eraman beharrik gabe, eta/edo gurpilak eta behar adina finkagailu edukiko dituzte, erabiltzen ari direnean ez mugitzeko eta iraulketen kontrako egonkortasuna bermatzeko. Egiturak ez du ertz zorrotzik edukiko, eta oinetan gomazko babesgarriak jarri beharko zaizkie, zaratak leuntzeko eta bizilagunei ahalik eta eragozpen gutxien sortzeko. Debekatuta egongo da erakustegien egonkortasuna bermatzeko horiek lurrean ainguratzea.

8.- Fatxadara itsatsita jarri daitezkeenean, elementuek gutxienez 0,6 metroko tartea edukiko dute ezkaratzetatik edo aldameneko beste okupazio batetik.

9.- Establezimenduaren kanpoko elementuen egiturak seguruak izango dira, eta baldintza estetiko edo apaindurazko egokiak izango dituzte. Elementuak, nagusiki, aluminiozkoak, egurrezkoak, plastikozkoak eta kolore neutrokoak izango dira, eta inguruarekin eta fatxadekin harmonian egongo dira. Baimen edo establezimendu bateko elementu guztiak material, kolore (edo kolore-sorta), diseinu eta testura berarekin egindakoak izango dira.

10.- Banku eta finantza-erakundeek kutxa automatikoak eta antzeko beste gailu batzuk jartzen dituzte fatxadetan. Horien bidez, erabiltzaileei etenik gabeko zerbitzua ematen zaie jabari publikoan. Horiek jabari publikoaren aprobetxamendu bereziak dira. Zerbitzu horiek deskribatutako moduan ematen dituzten banku eta finantza-erakundeen ardurak izango da jabari publikoan egiten den okupazioak ez eragoztearen haren ohiko erabilera eta ez oztopatzea oinezkoen joan-etorria. Kutxazain horiek irisgarriak izango dira pertsona guztientzat, eta gutxienez 2,50 metro zabaleko aurrealdea libre eta oztoporik gabe duten lekuetan bakarrik baimendu daitezke. Hala ere, ordenantza hau indarrean sartzen den egunean indarrean dauden baimenek indarrean jarraituko dute, harik eta baimendutako pertsonak baimena bukatzea eskatzen duen arte edo Udalak, interes orokorreko arrazoiengatik eta interesdunari entzun ondoren, lizentzia indarririk gabe uzten duen arte.

11.- Debekatuta dago pisatzeko, neurtzeko edo kobratzeko elementuak jartzea bide publikoan.

### **23. artikulua. Produktuen salmenta automatikoa eta jolas-makinak**

1.- Oro har, debekatuta dago bide publikoa okupatzea salmenta automatikoko makinak jartzeko.

2.- Salbuespenez, haurren aisialdiarekin lotutako jardueretan, goxokien salmenta automatikoko makinak eta haurrentzako aisialdi-makinak edo antzekoak jarri ahalko dira, musikarik gabe, baldin eta oinezkoen joan-etorria oztopatzen ez badute. Aurretik aldeko txostena egin beharko du Mugikortasun Departamentuak.

3.- Bide publikora ematen duten fatxadetan, edariak eta jakiak eta edonolako produktuak saltzeko jartzen diren makina eta gailu automatiko baimenduak jabari publikoaren aprobetxamendu bereziak dira. Makinok aukera ematen diete erabiltzaileei jabari publikoan zuzenean eta etenik gabe erosteko.

4.- Aurreko atalean deskribatutako makinaren edo gailuen pertsona edo erakunde titularren edo horiek sortzen dituzten aprobetxamenduen onuradunen ardurak izango da jabari publikoan egiten den okupazioak ez eragoztearen haren ohiko erabilera, ez oztopatzea oinezkoen joan-etorria eta bizilagunei eragozpenik ez sortzea. Gutxienez 2,50 metro zabaleko aurrealdea libre eta oztoporik gabe duten lekuetan bakarrik baimendu daitezke. Hala ere, ordenantza hau indarrean sartzen den egunean indarrean dauden baimenek indarrean jarraituko dute, harik eta baimendutako pertsonak baimena bukatzea eskatzen duen arte edo Udalak, interes orokorreko arrazoiengatik eta interesdunari entzun ondoren, lizentzia indarririk gabe uzten duen arte.

#### **24. artikulua. Okupatuko den azaleraren mugaketa**

Lizentzia lortu ondoren eta lizentziaren titularra edo bere ordezkaria tokian bertan dela, Udalak argi eta garbi adieraziko dizkio baimendutako gehienezko okupazio-azaleraren mugak.

Mugaketa hori lurzoruan bertan egingo da, udal zerbitzu teknikoek definitzen duten sistema erabiliz, eta bere baimenik gabe ezingo da, inolaz ere, mugaketa hori aldatu edo kendu.

### **VI. KAPITULUA.- ZIGOR-ARAUBIDEA ETA LEGEZKOTASUNA BERRESKURATZEA**

#### **25. artikulua. Baimendu gabeko instalazioak**

Udaltzaingoak kautelaz eta berehala kendu ahal izango du bide publikotik dagokion baimenik gabe jarritako edozein elementu, edo kentzeko eskatu eta errekerimendua bete ez bada; eta horretarako izendatutako tokian gordeko ditu, arduradunaren kontura, aurreikusitako zigorrak jartzeari utzi gabe.

Erabilera publikoko lurzorua horrelako instalazioen bidez lizentziarik gabe okupatzea hirigintzako arau-haustetzat jotzen da eta, instalazio guztia desmuntatu eta kendu behar izateaz gain, indarrean dagoen hirigintza-ordenamenduan aurreikusita dauden zigorrak jarri ahalko zaizkio arduradunari, aurrez dagokion espedientea tramitatu eta gero.

#### **26. artikulua. Lizentziaren baldintzak ez betetzea**

Lizentziaren baldintzak edo ordenantza honetan jasotako aginduak betetzen ez badira zigor ekonomikoa jarriko da, toki-araubideari eta hirigintzari buruz indarrean dagoen legedian agertzen den moduan eta aurrez dagokion prozedura tramitatuta; horrez gain, lizentzia baliogabetu eta, ondorioz, instalazioa berehala kenaraztea gerta daiteke Udalaren errekerimendua bete ezean.

#### **27. artikulua. Arau-haustek eta zigorrak**

Ordenantza honen ondorioetarako, arau-haustek arinak, larriak eta oso larriak izango dira.

1. Hauek izango dira arau-hauste arinak:

- a) Terrazak, mahaiak edo beste elementuren bat lizentziarik gabe jartzea, baldin eta eragindako molestiak txikiak izateagatik ezin badira larrizat hartu.
- b) Terraza, mahaiak edo beste elementuren bat jartzea, Udalak emandako baldintzen laburpen-fitxa ikusteko moduko tokian jarri gabe.
- c) Jarritako ordutegitik kanpo jartzea terrazetako altzariak, horretarako baimen baldintzatua izan ezean.
- d) Okupazioak espazio baimendua gainditzea.
- e) Terraza osatzen duten elementuak jaso ondoren, hondakinak ez jasotzea.
- f) Ordenantza honetan oinezkoen joan-etorria bermatzeari buruz adierazi diren neurriak ez betetzea.
- g) Okupatuko den espazioa apaindura, segurtasun eta garbiketaren aldetik behar bezain ondo ez edukitzea.
- h) Espazio publikoa edozein merkataritza-jarduera edo salmenta egiteko okupatzea, baimenik gabe.
- i) Ordenantza honetan jasotako araudia ez betetzea, arau-hauste hori larria edo oso larria ez bada.

2. Hauek izango dira arau-hauste larriak:

- a) Terrazak edo beste elementu batzuk lizentziarik gabe jartzea. Mota honetan sartzen da epearen barruan tasa ordaindu gabe okupatzen jarraitzea.
- b) Guztiz debekatuta dago terrazen garbiketako urak eta/edo hondakinak itsasora, hondartzara edo jabari publiko itsas-lehortarrera botatzea.



- c) Arau-hauste arina egitea, urtebetean bi arau-hauste arin edo gehiago egiteagatik bide administratiboan ebazpen irmoaren bitartez zigortua izan ondoren.

3. Hauek izango dira arau-hauste oso larriak:

- a) Arau-hauste larria egitea, urtebetean bi arau-hauste larri edo gehiago egiteagatik bide administratiboan ebazpen irmoaren bitartez zigortua izan ondoren.
- b) Lizenziaren edozein betebeharrak, debeku edo baldintza ez betetzea, behar bezala egiaztatu ondoren bizilagun edo oinezkoen edo ingurumenaren interesari, segurtasun eta/edo osasunari kalte larriak eragiten dizkiola.

Aurreko arau-hausteei ondorengo eskalaren arabera isunak jarriko zaizkie:

- Arau-hauste arinak: 750 eurora bitarteko isuna eta/edo lizentzia baliogabetzea eta ondorioz instalazioa berehala kenaraztea, udal errekerimendua bete ezean.
- Arau-hauste larriak: 751tik 1.500 eurora bitarteko isuna eta/edo lizentzia baliogabetzea eta ondorioz instalazioa berehala kenaraztea eta/edo establezimendua gaitasunik gabe uztea ordenantza honek arautzen dituen baimenak aurrerantzean lortzeko, gehienez ere 2 urtez, gertakarien larritasunaren arabera.
- Arau-hauste oso larriak: 1.501etik 3.000 eurora bitarteko isuna eta/edo lizentzia baliogabetzea eta ondorioz instalazioa berehala kenaraztea eta/edo establezimendua gaitasunik gabe uztea ordenantza honek arautzen dituen baimenak aurrerantzean lortzeko, gehienez ere 4 urtez, gertakarien larritasunaren arabera.

Instalazioa aurrerago legezztatzen bada, eta arau-haustea errepikatu ez bada edo udal errekerimenduei aurre egin ez bazaie, zigorra ekonomikoa bakarrik izan daiteke.

## **XEDAPEN GEHIGARRIA**

### **Hizkuntza baldintzak**

Zarauzko udalerriko espazio publikoan kontsumitzaileentzat eta erabiltzaileentzat jarritako informazio idatzia eta segurtasun-oharrak euskaraz ere idatziko dira; eta hori, araudi honen arabera: 179/2019 Dekretua (Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa), Euskadiko Toki Erakundeek buruzko 2/2016 Legea hizkuntzaren arloan garatzen duena.

Menuak, prezio-zerrendak, kartelak, eskaintzak, arbeletako oharrak, toldoen eta beste egitura batzuen errotulazioa, etab. bi hizkuntzetan edo gehiagotan jartzen badira, euskarari lehentasuna emango zaio (hurrenkeran, tamainan...).

Establezimenduek Euskara Departamentuaren laguntza izango dute testuak euskaratzeko. Gainera, Udalak dirulaguntzak emango ditu errotulazioko elementuak eta irudi korporatiboa euskara hutsean jartzeagatik.

Edonola ere, une oro bete beharko DIRA EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA eta EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA (Udalak aldi bakoitzerako onartzen dituenak).

## **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Ordenantza honek berariaz indargabetzen du bide publikoa terraza eta mahaiekin okupatu eta erabiltzeko udal ordenantza; Ordenantza hori 2013ko maiatzaren 14an onartu zen, eta 2013ko ekainaren 7an argitaratu Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO, 108. zk.).

## **XEDAPEN IRAGANKORRA**

BIDE PUBLIKOA TERRAZA ETA MAHAIEKIN OKUPATU ETA ERABILTZeko UDAL ORDENANTZAREN babesean (2013ko ekainaren 7ko GAOn argitaratutakoa, 108 zk.) emandako baimen guztiak berritu egin beharko dira, eta interesdunek Ordenantza honetara egokitutako baimen berria eskatu beharko dute, ordenantza onartu eta hilabeteko epean. Ordenantza onartzen denean indarrean dauden baimenak automatikoki luzatuko dira, harik eta Udalak eskabide berriak erabaki arte.

Jarritako epean baimen berria eskatu ezean, establezimendua lizentziarik gabe geratuko da automatikoki.

Indargabetuko den ordenantzaren indarraldian zehar aurkeztu diren eskabideak oraindik erabaki gabe badaude, horiek ere eskabidea berritu beharko dute eta Ordenantza honetako xedapenetara egokitu.

#### **AZKEN XEDAPENA**

Ordenantzaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta handik 15 egun balioduneko epean sartuko da indarrean.

#### **8.- ESKARI-GALDERAK**

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20221124&punto=8>

Bertaratutako inork ez du hitzik hartu.

Eta aztertzekeo besterik ezean, batzarburu jaunak osoko bilkurari amaiera eman dio, arratsaldeko zortziak eta zortzi direnean; eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.